


Etzi

— etorkizunaren nostalgia sortzen —



Etzi izan nahi duguna gaur eztabaidatzeko tresna



Itsas nabigazioaren oinarrietako bat beti izan da aurreikuspenak egin eta ezezagunak diren itsas bideetan barrena nabigatzea, batzuetan aberastasunak, lurralde edo bide berriak aurkitu asmoz eta beste askotan ezezaguna zaigun horretan etorkizun hobeak bilatu eta eraikitzeko. Gaur egun ordea, dena ezaguna dela iruditzen zaigun garai hauetan, zeinetan batzuk ia historiaren amaiera aldarrikatu duten, etorkizun hobe edo ezberdinen bila ekiteko grina lausotu zaigu, eta horrekin batera etorkizuna helburu, aurreikuspenak egiteko gaitasuna. **etzi.pm** etorkizunak eraikitzeko bidean nabigatzeko tresna izateko asmoarekin jaio zen.

etzi.pm Talaios kooperatibaren proiektu bat da. Bakalhau irlako eztabaidetan eta Talaios kooperatiba sortu genuenetik buruan genuena. Eztabaida hauetan ikusten genuen, etorkizuneko estrategiak hainbat gaietan planteatzerako orduan, etorkizun posible horien inguruko eztabaida eta hausnarketa falta zela Euskal Herrian, eta horregatik egoera konpontzeko gure aportazio txikia egin behar genuela. Horrela 2013 urte

hasieratik proiektua lantzen hasi eta urte hartako Durangoko Azokan Kabi@ gunean ideia proposatu eta kontraste interesgarriak jaso ondoren, proiektua gehiago landu eta azkenean argitaratu genuen.

Edukiak lantzeko talde ederra izan dugu bidean, etengabe aldatzen eta berritzen joan dena, gai eta izaeretan anitza, eta horrexeagatik, ikuspuntu ezberdinetatik abiatuta, etorkizun posibleen aukera zabalak bide berri asko erakutsiko dizkigute.

Beti izan da zaila ezezagunaren aurrean bidea egitea, eta horregatik karta maritimo zaharretan ezezaguna eta oztopoak irudikatzen zuten itsas muntroen sinbologia erabili izan da. Guk sinbolo hori hartu eta Krakena gure ikur bihurtu dugu, beldurrik gabe oztopo eta kontradikzioak eztabaida eta ezagutzaren bitartez gaindituko ditugula erakusteko.

Finantzazio kolektiborako kanpaina, abian

Aro berrian sartu da Etzi Portu Maritimoa. Horren erakusgarri da urtekari hau. Harpidetza sistema kooperazio kolektiboagatik aldatzeko erabakia hartu dugu, eta Etzi irekitzea, zuen konpromisoa lortu eta komunari ekarpena egin ahal izateko. Etzi komuna izango da, beraz; guztion eskura egongo dira bertako edukiak. Aiert Goenagak orain ikus-entzunezkoen ardura hartuko du, eta Nagore Vegak koordinazioa, Talaios kooperatibaren lan taldearekin batera. Luma berriak izango ditugu artikuluetan. Ikus-entzunezkoei garrantzia berezia emango diegu: bideoak, irriti saio bat, ilustrazioak... Etzi Eguneko bazkaria eta Etzi Sariak ahaztu gabe, noski.

etzi.pm hedabide digital bat da. Ez da, hori bai, hedabide arrunt bat; etorkizunari begirakoa baizik. Lehen fase honetan behintzat tresnak interneten izan du kokalekua, eta hori izan da ardatz nagusia, baina hemendik aurrera gai hauen inguruko

edizio, ekitaldi eta foro presentzialak antolatzen asmoa ere badugu.

Etzikide izatea, etorkizuneko proiektu komunikatibo bateko komunitateko kide izatea da. Etzi.pm lagunduz posible egiten duzu komunikabide honen jarraipena eta hedapena. Gure eduki guztiak libre zabaldu nahi ditugu, etorkizun posibleak irudikatzen beharrezkoa ikusten dugulako, baina aldi berean, zure laguntzagatik, zerbait berezia eskaini nahi dizuegu.

etzi.pm-k bere autofinantzatzea du helburu, eta horretarako, interesatutako jende eta eragileen aportazioa bilatuko dugu, auzolaguntzarekin proiektua bideragarri egiteko. Hori lortu ahal izateko, crowdfunding kanpaina irekiko dugu 2017aren hasierara arte.

Gonbidatuak zaudete beraz, tresnarekin gozatu, ikasi, eztabaidatu eta etorkizunak eraikitzea, **etzi izan nahi duguna guk eztabaidatu eta erabaki dezagun**.



Ekonomia Partekatua

Gorka Julio - @teketen

#AlternatibenHerria #Ekonomia #EkonomiaKomunitarioa #EkonomiaPartekatua #ESE #KartaSoziala #OinarrizkoErrenta #Politika #Prekaritatea #ZerbitzuPublikoak #EkonomiaSozialEraldatzailea

Ekonomia Partekatua trantsizio eredu bezala kontsidera daitekeen proposamena da. Sektore publiko eta komunitarioen artean, bakoitzaren esparrua babestuz eta ez ordezkatzuz, kontzertazio publiko-pribatuari aurre egingo dion aliantza estrategikoa.

Horretarako, ekonomiaren ardura partekatua behar du izan, ahal-duntzean oinarrituta, ekonomiari buruz ezagutza edo intuizioa izatea behar beharrezkoa bihurtzen da horrela. Orain arte, ekonomia ulertu ezin den eremu konplexu bat bezala aurkezteak aldiz, gure esparruetatik kanpo dagoenaren sentsazioa izatera eramaten gaituen bezala, ekonomiaren jabe eginenez, ardurak eta eskubideak partekatuz gero, gure eskuetan hartu dezakegu etorkizuna, baita ekonomikoa ere.

Eredu honek bi erreietan, publikoan eta komunitarioan ibiltzeko aukera ematen digu, bi horietan jokatzuz instituzioetan boterea eskuratu gabe ere aurrerapenak egin ahal izatea, edota irudimena erabiliz atzeraezinak diren erabakiak hartzeko aukera gehiago edukitzea posible egiten du. Honek ez du esan nahi botere instituzionalari uko egiten zaionik, gutxiago oraindik, honen izaera publikoa baztertzeko denik. Aukerak biderkatzeko estrategia honen helburua, beste era batera ezinezkoa liratekeen erabaki posible egitea da.

Bi eremuak sinkronizatzen diren momentuan aldiz, programa osoa inplementatzeko aukera eman-go luke estrategiak. Aldi berean, ekonomia komunitarioko sektore batzuetan botere instituzionalarekin harremantzeko beldurra uxatu beharko luke, behintzat plazartu. Botere instituzionala, bi errai-

letako bat bezala ulertuta, ezinbesteko ere bihurtzen du botere politikoa ere bilatzea, helburuak osotasunean lortu ahal izateko. Bi arloen arteko aliantza bat denez, eremu publikoaz gain, ekonomia komunitario horren izaera zein izan behar duen eta nola egituratu behar den proposatzera ere iritsi beharko luke ereduak. Eremu publikoan eredu ezberdinak nahiko zehaztuta dauden bitartean, ekonomia komunitarioaren esparru horretan kokatzen diren agenteak eta esperientziak oso anitzak dira. Ereduaren aniztasuna saretzeaz gain, eremu horretan eredu erreferenterik sustatu beharko balitz, eredu hori dudarik gabe Ekonomia Sozial Eraldatzailea litzateke.

Ekonomia mota honek frogatu du edozein sektore eta arlotan eragiteko gaitasuna. Orain arteko kapital-lana arteko talka, kapital-bizitza bezala ulertzen badugu, ereduak zehazki horri erantzuten dio; pertsonen bizitza eta beren beharrak erdigunean jarritz. Ekonomia Sozial Eraldatzaileak gure bizitzarekin egiten duen bezala, gure helburua litzateke beraz beste ekonomia eredu justuagoa barne duen eredu berri hau erdira ekartzea. Ekonomia Partekatua aliantza estrategikoa honetan posible denean, baina baita aldebakartasunean egin beharko balitz ere.

Arlo honetan egiten diren aurrerapausoak ez dira soilik ekonomiaren esparruan gelditzen, estatugintza

eta prozesu independentista baterako sostengu eremuak ere izan daitezke; nahiko ez badira ere, inoiz ez alferrikako lana. Frogatua dago, Ekonomia Sozial Eraldatzaileko ereduak zentralitate osoa eskuratu gabe ere, ekonomiaren parte garrantzitsu bat hartuz gero, beste ekonomia ereduak ere kutsatzeko gai dela.

Ekonomia Partekatuaren eskeman funtzionatzen ari bagara, horren kanpo gelditzen direnentzat estrategia ezberdin bat ere proposatzeko beharra dago. Estrategia ezberdina bat bai, baina hau ere ESEren parametroetara ekarriz eta ahal den guztietan komunerako ekarpenak bilatuz egin behar da: Horrela enpresetako lan baldintzak salatu, erreproduzioaren gaia eztabaidetan txertatu, prekaritatearen aurkako borrokak hauspotu, oinarrizko errenta eskuratzeko aldarrikapena hedatu, parte hartze ereduaren eztabaida mahai gainean jarri, produkzio baliabideen jabetzaren aldarrikapen erradikalak formulatu eta batzuetan enpresen eredu eraldaketak proposatzeko bideak pentsatu.

Herri honek badu indarra honetarako, aurreko esperientzia askok erakutsi diguten bezala. Karta Sozialaren hausnarketa partekatutik, Alternatiben Herria ekimen partekatura bildu zirenak bide polita ireki zuten, baina askoz gehiago dira oraindik ideia honekin bat egin dezaketenak, bil gaitzen!

Eta orain, zer ote dator orain?

Imanol Epelde - @27zapata

#Gizartea #Hezkuntza #Kultura #TeknologiaBerriak

Hari narratibo batek lotzen gaitu bizitzara. Eta norberak erabakitzen du narratzailea kanpoko norbait izango den edo norbera. Bakoitzak erabakitzen du kontatuko dena edo zaiona historia izango den, edo istorio: beltza, tragikomikoa, esperimentala. Bizitza narrazioa da. Horregatik engantxatzen nau bizitzak. Badakidalako eta ez dakidalako zer datorren.

Bizitzan bezala, ikasgai bat planifikatzerakoan ere gidoi bat idazten ari naizela pentsatzen saiatu behar dut. Irakasleak gidari eta ikasleak protagonista izango diren pelikula abenturazkoa osatu nahi dudala. Klaseak funtzionatuko badu, gidoiak funtzionatu delako izango da. Klase bakoitza bukatu beharko lukete nire ikasleek galdezka: Eta orain, zer ote dator orain? Noiz iritsiko nire hurrengo klasea.

Galdera hori probokatzeko ezinbestekoa dut ikasleen pasioetatik eta interesetatik abiatzea. Zerk mugitzen ditu gazteak? Zein gaitasun eta abilezia dituzte? Urtero-urtero ezin naiz ibili gauza bera egiten ikasle desberdinak izanda. Entzuten ditut euren galderak? Zein kezka dituzte? Mundua aldatzen ari da eta euren gandik jaso nitzake klabe asko. Ikasleekin etenik gabe mantendu behar dut feedbacka, jakiteko zerk merezi duen ikasleak jakitea. Bedi aspermena klaseko etsai baikar. Bego Zoriona aparteko ikasgai bihurtu nahi dutenen asmoa gogoan bakarrik.

Aurten bai, Imanol. Sarritan entzuten den esaldia aplikatu behar dut. Izan dezadan kontuan beti lanik efektiboena afektiboena dela. Nola tratatu ditudan, nola sentiarazi ditudan, hori da gogoratuko dutena. Burutik burura baino bihotzetik bihotzera egin beharko nuke lan. Eta kasu! Jarri diezaiodan arreta isiltzen dudanari. Esaten dudanarekin baino gehiago irakasten dut-eta isiltasunarekin.

Baliabide digitalak horren guztiaren esanetara erabili beharko nituzke. Elkarrekin. Gauza guztien gainetik elkarrekintza delako sareak ekarri diguna. 2.0a. Elkarrekin eraikitzea jakintza, ikaskuntza, prozesua. Lankidetzan. Ikaskidetzan. Gizarte hiperkonektatua da gurea. Espezie globalak gara. Bukatu da bakoitzak berea egiteko garaia. Elkarlanean aritu behar dut gainerakoekin. Eskolako mugak gainditu. Ikastetxe asko jar gintezke elkarlanean. Eskoletako hormak eraisten egin behar dut lan Berlingoak, Palestinakoak, Bidasakoak nola. Baina ez kanpora begirako hormak soilik, baita ikastetxe barrukoak ere: mailak-ge-lak-irakasleak nahastuz.

Eta hori dena, den-dena ikasleak euren narrazioaren protagonista bihurtzeko. Behaketak asko lagundu dezake, entzuteak. Bai, baina ikasi, benetan ikasi eurak protagonista bihurtzean ikasiko dute. Eta egitean, ekitean: galderak egin eta erantzuten saiatzen direnean, ulertzen saiatzen direnean, haiek direnean ikasitakoa azaldu behar dutenak. Ez diet literatura buruz ikasgaraziko, Lubaki Banda bat ateratzen saiatuko naiz gelatik.

Aupa Imanol. Ez zegok erraza baina 2016 honetan bai. Lortuko duk. Hik badakik klaseak ematen. Ohm pare bat klasera sartu orduko eta maitasun pila bat euskarako klase bakoitzean. Hitaz akaso ez, baina hizkuntzaz eta bizitzaz maitemindu daitezen zertxobait gehiago.



Bi fundazioen hipotesia (Spoiler free)

Xabier Landabidea - @txerren

#Euskaltzaindia #Fundazioa #IparHegoa #Iratzar #IsaacAsimov #Jano #ManuRoblesArangiz #SabinoArana #ZiFi

Gutxi aipatu dugu ZiFi txoko hauetan orain arte Issac Asimov. Eta pena bat da, ospe eta izen handiko figura batzuek, itzalaz eta oihartzunaz gain pisua eta ahotsa ere badaukatelako.

Halakoak ez dira aurreko belaunaldien ahotik behin eta berriz entzundako erreferentzia lauso baina memorian ondo trinkotutako horiek, noiz edo noiz alferkeria eta kuriositatearen arteko egoera intelektual horretan herabe hurbildu ostean zuretzako ezer ez daukatenaz konbentzitura berrir bisitatzen ez dituzunak. Alderantziz gertatzen zaie: hurbildu eta -batzuetan berehala, besteetan tarte batera- bi norantzako esangura bat sortzen dute: zure aurrekoen zirrara berrir bizitzearena batetik, eta zirrara horrek zu bizi zaituenarena bestetik, esanahi, esanbehar berriak hartzen dituelarik testuak, margolanak, filmak, antzezlanak, jaiak, herriak, borrokak, pertsonaiak, lanak, tokiak. Zerbait aurkitzen duzu, eta zerbaitek zu aurkitzen zaitu.

Asimovekin (eta XX. mende Erdialdeko zientzia fikzioarekin orohar) niri horrelako zerbait gertatu izan zait.

Asimov bera aski ezaguna izaki (ziurrenez ZiFiaz ezer ez dakienak bere izena entzuna izango du) Isaac Asimoven erroboten liburu saila da agian ezagunena, eta are ezagunagoa da urteetan trilogia izan den Fundazioa saila. Hasiera batetan hiru liburu (Fundazioa, Fundazioa eta Inperioa, Bigarren Fundazioa) gerora zazpikotea bihurtu zen autorearen eskutik. Eta bizi ditugun transmediaren garaietan auskalo zein beste garapen izango dituen oraindik Hari Seldon eta psikohistoriagileen munduak, HBOren telesail, bideojoko, komiki, MMORPG, animazio eta abarretan. Enderren Jokoa zinemara eramana ikusi dugu, eta ez da desastre erabatekoa izan. Auskalo Asimoven Fundazioaren sustraia zein beste adar ikusiko ditugun oraindik. Batzuk mereziko dute akaso.

Edozelan ere, Fundazioaren mundu fikziozkoan (OHARRA: liburuak irakurri ez badituzu, irakurle, hona gomen-dioa: irakurri. Edozelan ere lasai, ez dut spoilerrik egingo) badago zentrala den figura bat, psikohistoriaren zientziarekin lotutakoa, baina gaur egungo Euskal Herriarekin eta Etzi Portu Maritimoarekin lotura intimoa duela uste dudana: Fundazioen ideia.

Izan ere, Hari Seldonek bi fundazio sortu zituenean (bakoitza galaxiaren ertz batean) arrazoi osoa zuela uste dut.

Eta ez naiz Sabino Arana Fundazioaz edo Iratzar Fundazioaz, edo are Ipar Hegoa Fundazioaz edo Manu Robles Arangiz Fundazioaz ari. Fundazioak sortzea ondo iruditzen zait noski, Francisco Francok bat baldin badu nola ez ditugu ba guk geureak eraikiko; baina ez bere horretan, bi fundazio elementalki aurrez-aurreko sortzearen ideiaz ari naiz, fundazio bakoitzean.

Pentsa dezagun Euskaltzaindian adibidez. Duela gutxi kalean (Bilbokoetan behintzat) eta etxean sarri erabiltzen dugun “kotxea” berba (automobila, berebila, zalgurdia) eliminatzea erabaki omen dute, twitterriaren deskonjono orokorrerako. Erabaki ondo informatua izan omen da. Pentsatua. Eztabaidatua. Arrazoitua. Baina horrek ez du kale-sareko euskararekin nolabaiteko disonantzia psikohistoriko bat sortzea ekidin. Nolabait esatearren, Euskaltzaindiaren denbora beti dago euskal gizartearen denboren atzetik. Normala ere bada, hizkuntzaren arloan ibilita, hiztunen dinamikotasuna eta hizkuntzarena ezberdinak baitira, geologiaren erritmoak eta begetazioaren ezberdinak diren bezalaxe.

Baina hor aukera bat irekitzen zaigu: zergatik ez fundatu bi euskaltzaindi: bata, daukagunaren antzekoa, atzera begirakoa, Euskaltzaindia. Bestea, oraindik sortzeko daukaguna, aurrera begirakoa: Euskaltzailtza. Batak, klasikoak irakurriko ditu. Tradizioa orraztu, egina dagoena ehun, zutoinak ezarri, orainaldiari proposamenak egiteko. Besteak oraina esploratuko du, bere forma guztietan: garapen berriak, irekitzen diren aukerak, gerta litezkeenak, orainaldia etor litekeenaren argitan irakurtzeko. Batak, orain arte bezala, aukerak itxi egingo lituzke (edo daudden artean aukeratu), eta besteak nolabait esatearren, ireki (edo zalantza berriak planteatu).


Esango didazue, eta arrazoiz, erraza dela Euskal Telebistari eta Euskaltzaindiari buruz halakoak esatea, baina nire bi fundazioen hipotesia egungo beste herri eta gizarte erakunde guztietara zabalduko nuke: unibertsi-tateko sail eta institutueta, irratitelebistetara, alderdi politikoetara, sindikatueta, lan lekuetara, egunkarietara... Eta bereziki egingo nuke nik parte hartzen ditudan egitura eta antolaketetan, noski. Nostalgia bikoitza behar dugu: iraganaren nostalgia (palangadaka daukaguna gurean, barkatuko didazue) eta etorkizunaren nostalgia (askosaz eskasago darabilguna baina askoz potentzialtasun interesgarriagoa duena, Talaioseko lagunek esan ohi duten bezala).

Etziak biak behar ditu, biharra eta atzoa. Ez da nahikoa orain arteko esperientziatik eratorritako kalkulu eta autoritatearekin, eta ez da nahikoa izan litekeenaren (baina oraindik ez den) irudimena eta asmoa. Bi noranzkoak behar ditugulakoan nago, bakoitza gure mugimendu eta antolamenduen bihotz bakoitzaren ertz diferentean. Janoren aurpegi bikoitza bezala, bata atzera begira dagoena, eta aurrera begira dagoena bestea.

Hori orohar horrela dela iruditzen zait 2016ko Euskal Herrian. Ebidente samarra zaigula jada.

Agian interesgarriagoa da pentsatzen hastea bi aurpegiek nola entzun eta hitzegin diezaioketen elkarri. Nola komunikatu atzerantzko eta aurrerantzko logiken artean. Komunikazio hori aurreko mendeen irratizaleen antzekoa izan daitekeen, “alda” eta “itxi” eta “alda eta itxi” bezalako agindu-gramatikak sortuz norbera isiltzeko eta besteari hitza emateko, edo netiquette forma berriak garatu beharko diren berez arrazoi berak baina bektore ezberdinez mugitzen diren indar/arrazoiek elkar ulertu dezaten. Fundazioa liburu sailean ere zailtasun ebidenteak zeuden, Lehenengo eta Bigarren Fundazioaren artean: hain ziren logika ezberdinak, biek ala biek helburu bera zuten arren...

Baina gure herri-ezagutzaren eta gizarte-ekintzaren etorkizuna hortik doala uste dut: bien arteko uztardura konponezin eta emankor horretan.



Startup eredua ez da eredugarria

Beñat Irasuegi - @birasuegi

#Ekonomia #ESE #GarapenEkonomikoa #Munizipalismoa #Startup #Udalgintza

Garapen ekonomikoaren inguruko ekimenetan aritzean edo irakurtzean, askotan ateratzen da startup enpresei buruzko informazioa, erreferente moduan, denok jarraitu beharko genukeen eredu moduan, beraiek lortu badute guk ere lortu dezakegu etab. Baina zer da startup bat?

Definizio klasikoa hartuta [1] esango dugu, askotan teknologiari lotutako edo negozio eredu/zerbitzu/produktu berritzaileak eskaintzen dituzten enpresa emergenteak direla. Baina definizioari analisi kritiko minimo bat eginez esango dugu, kapital metaketa azeleratzeko asmoz, negozio eredu/zerbitzu/produktuaren inguruko aukerak komunikazio eta marketing teknika bidez puztu eta finantzaketa aukerak handituz, etekin azkarrak lortzera bideratutako enpresa eredua dela.

Asko eztabaidatu dezakegu aurretik idatzitakoez, berez eztabaida falta dago, eta behar genuke, zeren eztabaidarik gabe diskurtsoa markatu nahi dutenen markoetan blokeaturik geratu gaitezke [2] Baina bada arazo bat erreala, eta dat startup formula eredua dela gure hiri eta eskualdetako garapen ekonomikorako egitura publikoetan. Bide horretan, talentuaren, hoberenen, arrakasta eredu indibidualen aldeko apostua egiten da, berrikuntzaren aitzakian, eredu enpresarial kapitalista erreplikaturik. Jende prestatuaren eskuetan utzi behar da territorioen garapen ekonomikoa, baina Hedoi Etxarrek abisua pasa zigun 'Neoliberalen kontzeptu askorekin markatzen dute beren partida egunero. Kontzeptu horietako bat da jende prestatuarena' [3] Horretarako nola ez, gaur egungo kolaborazioaren kultura erabiltzen da, sareak, espazioak, partekatze ekonomiaren (Sharing

Economy) ideia, baina modu estetikoan.

Baina edozein kritika arrazoi behar da, eta aurretik egindakoak baditu oinarritzko arrazoiak. Beste toki batzuetan ere esan dugu jendartean eta ekonomian gertatzen diren tentsio handienak Bizitza vs Kapitalaren arteko konfrontazioan gertatzen direla, eta kasu honetan ere hor dago gakoa. Startup ereduak finantziarizazio behar handia du, proiektua inbertsoreei erakargarri egiteko, kapitala du helburu eta tresna beraz. Finantza erakunde tradizionalak ez dute inguruarekin harremanik, beraz berdin zaie proiektuak ingurunean duen eragin ekonomiko eta soziala, are eta gehiago, inbertsoreentzat erakargarriago egiteko proiektua hauentzat erakargarriago den eremuetara eramango dute, hirietara lehenik, world class enpresa gune eta herrialdeetara ondoren, finantziarizazioan pausoak ematearekin batera. Eta finantziarizazio hau nola gertatzen da proiektuaren sortzaileek oinarritzko kapitalik ez badute? Ba enpresaren zatiak edo kontrola salduz, kasu askotan %100ean. Esan daiteke Startup askorentzat hori dela helburu nagusia, errenta edo kapitalaren truke proiektua ahalik eta garestien saltzea. Eta zer ikusteko du horrek tokiko garapenarekin, edo ingurune sozialarekin errespetua izango duen proiektu batekin? Aberastasuna sortzen du baina norentzat? Eredu eta garapen bide honen kontrajarriak diren eta komunitate errealei

autonomia ekonomikoa eskeintzen dieten Bizitza proiektuak vs Metaketa proiektuak konfrontazioarekin aurkitzen gara beraz. Bideo honetan gai honetan sakontzen saiatzen naiz [4]. Ereduak kontrajarriak dira, aukeratu beharra dago.

Eta kritikaren ondoren proposamenak egiteko gai bagara askoz hobe. Kasu honetan aipatu bezala garapen ekonomikorako badago langileen bizi proiektuetan oinarritutako eredua lantzerik. Ekintzailtza kolektiboan oinarritutako proiektuekin, Olatukoopeko kide den Nagore Vegak artikulu honetan proposatzen duen moduan [5] Baina horretarako beharrezkoa da Ekintzailtza Kolektiboa lantzea proposatzen duen Ekonomia Sozial Eraldatzailea aintzat hartzea. Garapen ekonomikoa lurraldearekin eta jendartearen beharrek lotzeko, proiektu erresilientez osatutako sare ekonomikoa sortzeko, pertsona eta kolektiboei garapen eta autonomia aukerak eskeintzeko, ingurunearekiko errespetua bermatzeko, aberastasunaren banaketa hobe egiteko. Eta horretarako nahitaezkoa da Ekonomia sozial Eraldatzaileko eragileen eta Udal eta Tokiko Garapen Ekonomikorako egituren arteko aliantza bat. Badago nondik hasi eredu berriak zabaltzeko, ez ditzagun eredu txarrak erreplikatu. [6]

[1] **Startup definizio klasikoa** https://en.wikipedia.org/wiki/Startup_company

[2] **ADEGIko Foro de Emprendedoresen proposamena** <http://adegi.es/foroemprendedores/blog/2012/12/26/propuesta-abierta-para-el-desarrollo-de-una-gipuzkoa-empresadora/>

[3] **Jende prestatuari buruz Hedoi Etxarte** http://www.berria.eus/paperekoa/1922/019/002/2015-07-18/jende_prestatua.htm

[4] **Beñat Irasuegi Gure Bazka** <https://youtu.be/sDCCy7ILFfw>

[5] **Ekintzailtza kolektiboaz Olatukoopeko Nagore Vega** http://www.berria.eus/paperekoa/1870/026/1863/2015-12-13/ekintzailtza_kolektiboa.htm

[6] **Ekonomia Sozial Eraldatzailea herrietan bultzatzeko proposamena (10 neurri)** <http://olatukoop.net/ekonomia-sozial-eraldatzailea-herrietan-bultzatzeko-proposamena/>



Estatu tekniko bat utzi eta ikurrinak sukaldeko trapu bihurtu

Santi Leoné -
@ororostorm

#Abertzaletasuna #Etnizismoa
#Ikurrak #Independentismoa #Nazio-Eraikuntza

Nire lagun batek erraten zuen behartzen zuten heinean zela abertzalea –haren ibilbidea ikusita, erranen nuke aspaldi honetan ez dela sobera behartua sentitu, baina, sentimendu guziak bezala, behartua izatearena franko subjektiboa da–. Halere, diotenez, nazionalismoa gainditua dago–orain, Javier Cercasen Soldados de Salaminako pertsonaia hura bezala, independentista izatea tokatzen da, ezen ez abertzalea–.

Why Marx Was Right liburuan, Terry Eagletonek buru egiten dion lehendabiziko argudioa horixe bera da, marxismoa gainditua dagoela. Eagleton marxismoarekin bezala, ni ere kontent nintzateke nazionalismoaz hori dioteneke arrazoi balute, militantzia batzuk ez bailirateke beharrezkoak izanen: sinetsiezadazue erraten badizuet euskarari buruzko nire txio errebindikatiboek ez dutela inor ni baino gehiago aspertzen.

Denbora gutian pasatu gara iraganean estatu bat izan genuela –eta estatu hura berriz eratze prozesuan kulturalismoak eta hizkuntzarekiko “temak” traba egiten dutela– deskubritzetik, etorkizun hurbilean –lau urteren buruan erran du Unai Apaolazak– estatu bat osatuko dugula –eta prozesu horretan kulturalismoak eta hizkuntzarekiko “temak” traba egiten dutela– adieraztera.

Bien bitartean, gauza batzuk gertatu dira; iduri luke, lehenik eta behin, onartu egin ditugula gutaz etengabe erran dituzten zenbait gauza: tribalak garela, gure zilborrari begira bizi garela, gure diferentziarekin gozatzen dugula, xenofoboak garela... Galfarsorok eskatzen duen bezala, desagertzen saiatzen naiz egunero, euskaraz normal bizitzen, baina ez da posible –eta hori erratea negar egitea baldin bada, hala izan bedi–. Euskaldunberri naizen honek ez du uste espainola hizkuntza arrotza dela, eta behin baino gehiagotan aldarrikatu izan dut frantsesa ere ikasi beharko genukeela mugaz honaindi bizi gare-nok; nire ikusmoldea ez da bertakoa –euskalduna– / arrotza –espainola– bereizketa oinarritzen; aitzitik, maiz niri aplikatzen zait eskema hori –Euskal Herri- kanpo gabe, Euskal Erditik kanpo bizitzeak dituen abantailak–: euskalduna naizen aldetik, ni naiz kanpoko –hau

da, EAEko– ideologia Nafarroara ekarri nahi duena, ni naiz bere burua –pero tú qué eres, vasco o navarro?– behin eta berriz definitu behar izaten duena, ni naiz nafar esentzia espainola arrotz bihurtu nahi izanaren susmagarria. Galfarsoro noizbaiteko euskal estatu bat arrazista izateko aukerak kezkatzen dituen bitartean, nik egiazko xenofobia sufritzen dut eguneroko politikan –barkatu berriz ere negar egiteagatik–. Bigarrenik, Podemosek bere esparruaren zati bat jan dio euskal abertzaletasunari, eta, hara! ondorioa da etnizistak garela. Hemendik aitzinat, nazioak ez du balio independentzia aldarrikatzeko: batzen gaituena “hobeto bizi nahia” baita –hala adierazi zuen Apaolazak Otorduak bideoan; halaxe Galfarsorok, toki berean–. “Hobeto bizi nahia” franko kontu lausoa dela alde batera utzita, galdera da nahi horrek independentzia erdietsi nahi izatera eramanez gaituen, edo soilik estatu erreformatu nahi izatera. Independentzia mugimenduak, alde edo moldez, nazioari lotuak egon baitira: bertze kontu bat da, osatu nahi den estatuak nazio-estatu klasikoak izan behar ote duen –bistan da ezetz–, edo pentsatu behar duen nola bermatu herritar guzien ongi-izatea –eta puntu horretan ados nago Galfarsororekin–.

Azkenik, Kataluniako prozesua izan dugu. Puntu honetan ere, hemen horrelako prozesurik sortzeko gaitasun faltak sorrarazten duen frustrazioa estaltzeko edo, nonbait erabaki da euskalgintzak traba egiten duela, eta bertzelako borroka unibertsalagoak bilatu behar ditugula, “hobeto bizitzea” helburu.

Bistan da estrategia berriak behar direla; baina Nabarralderen nafar estatu europarretik –iraganetik– Galfarsororen Euskal Herriko estatu europarrera –etorkizunera–, iduritzen zait orainaren gainetik salto mortala egin dugula. Euskaldunak desagertu behar du; normal bihurtu, alegia. Prozesu baten ondorioa beharko lukeena, ordea, prediku kasik moral baten gaia bihurtu da, euskalgintza –herritar izateko eginahala izan beharrean, tribugintza gisa salatu–, kritikatzeko.

Duela ez anitz, Espainiako hondarreko hauteskunde ondotik, Aingeru Epaltzak “Geure buruaz noraino” izenburuko zutabe bat publikatu zuen Nafarroako Diario de Noticiasen. Ez nintzen bat heldu testuan defendatu tesiarekin –bi solasetan esplikatua: Euskal Herrian kanpoko nahiago izan dugu beti, etxekoa baino, eta horrek Podemosen arrakasta azalduko luke–, baina tituluko ideia hona ekarriko nuke: gure buruaz nekatu egin gara, eta neke hori estatugintza unibertsalaren eta bertzelako kontzeptu ederren azpian estali nahian gabiltza.

Eta bai, nik ere desagertu nahiko nuke, aspalditik gainera. Baina ekarpen hori ez zait sekulakoa iduritzen. Are gehiago, hegemoniko bihurtzea helburu izan beharko genukeela errateko Zizek aipatu behar izatea, Iruñetik Gasteizera Vladivostoken barna joatea bezala da: Joseba Sarrionandiak aski argi eta aski eder adierazi baitzuen aspaldiko poema batean: Eta finean / euskalherria, / San Agustinenak eta faltsua-egia / frogak

pasa ondoren, / bene-benetako herri dadinean, /asmaketa ahaztuko dugu. / Estatu tekniko bat utzi eta ikurrinak / sukaldeko trapu bihurtuko ditugu, / gure herriak izatearenekin batera / ez izatearen abantailak izan ditzan.

Tontoak gara behelaino artean (eta eguzkitan)

Aiert Goenaga -
@aiertgoenaga

#Abertzaletasuna #Etnizismoa
#Ikurrak #Independentismoa #Nazio-Eraikuntza

Asteazken gauean, aspaldian sarri egin ohi dugun bezala, Sidy eta biok birra bat hartzen egon ginen. Barraren ertzean batzen garen aldiro mila konturi buruz hitz egiten dugu. Bizitzako gauza txikiez zein gauzatu gabeko amets ez haize boladak hortik ematean; lana, sexua edo bakoitzaren afizioez gehientsuenetan. Planeta bakarrean batzen diren bi mundu desberdinetakoak gara baina desberdinatsun ororen gainetik hautua bakarra, pentsatzen dena esan. Baina ostiralean Senegal eta Ondarru arteko kilometroak adinako zuloa nabaritu nuen sabelean. Mila kontu esateko makina bat hitz gehiago behar direnez beti ez baitugu egokienekin asmatzen. Krisiaren eraginaz ari girela herriko egoera zaila aipatu nuen. Ez dela lehen zenaren itzala, eta pobrezia ezkutuan mantentzen den arren hor dagoela, hainbat bizilagun apurka apurka itotzen. Segunduak behar izan zituen Ondarruko pobrezia munduan dagoen miseriarekin aldaratuz luxua dela esateko. Gehiegi kexatzen garela. Gehiegi edukitzera ohituak gaudela. Gure pribilegioei muzin egitearen planteamendu hutsak garuneko zaintirtua eragiten duen garaiotan bati baino gehiagori asimilatzea kostatuko zaion baieztapena. Baina arrazoi zuen. Benetako pobrezia, alegia miseria, gertutik ezagutu duenaren autoritateaz ari zen hizketan; nik egundaino usaindu ez dudana. Birra eta kanuto arteko parentesian espresioa aldatu zitzaion. Une bat izan zen, instant soil bat, baina amaigabea egin zitzaidan.

Eta zuloa handiago bihurtu zen fabrika baten argindarrrik gabe ia urtebetez hautu propioz bizitzen egon nintzenetik bi urte baino gutxiago pasa direla oroitzean. Norbere oinarritzko lehentasunak birdefinitzeko ariketa bezala egin. Eguneroko zurrumbilo kontsumistatik at. Gasezko su eta berogailu zaharra, irрати bat eta liburuak lagun hartuta. Bertako egonaldia bukatu ostean, europar mendebaldeko herri “aurreratu” bateko erritmo eta materialismotik ihes egin eta “bizitzaren esentzia”-z gozatzearen aldeko hautua egin, “zibili-

zaziora” bueltatu nintzen. Eta horretan ari naiz, saiatzen, baina joder, ze zaila den. Ze pozik bizi garen gure burbuila honetan. Sofa erosoak gara Kerobiak zioen bezala. Inozoak gehituko nioke nik, eta axolagabeak. Axolagabeak gure balizko printzipioekin, axolagabeak inguruarekin. Gure gailu elektronikoak ekoizteko koltanaren aferarekin os-trukarenak egiten dugunean esaterako. Gure arraindegietan arrainik falta ez dadin «gure» erakunde babesarekin, armatuak, Afrikako kostak hustu dituzten kortsarioen arraina erostean garen bezala. Edo XXI. mendeko esklabuek ekoiztutako arropak jantzita gure arduragabetasuna biluzian erakustean. Axolagabek baita, gure aldarri ezkertiarrek gure bizimodu burgesarekin parez pare topo egiten dutenean aldatu behar den sistemari errua botatzean; sistema norbanakoen batura dela ahaztuko bagenu bezala, eta ondorioz norbera dela aldatu behar dena.

Inozoak sare sozialetan eguneko aldarrizintzilikatu eta atsegite kopuruen arabera bihar beste bat zintzilikatu ala ez erabakitzean. Finean aldarri horren alde zer gehiago egin genezake ba? Ez eskatu gehiago arren. Edo oporretara nor joan den urrunen eta noren argazkiko ilunabarra den «cool»-ena aldaratzen ditugunean. Urrutira joan, ikusi eta buelta. Munduan bidaiatuz sendatzen baita ez dakit zer bat. Gure ustezko pribilegioen kateen loturagatik mundua bizitzea debekatua dugunean. Ze naturaltasunez ikusten dugun gure axolagabetasunean, bederatzi sexu eraso salaketa egonda herriko jaiek aurre jarraitzea. Ze gutxi baloratzen dugun albokoaren duintasuna, bere isiltasunean ohiukatzen duena, bere hauskortasuna. Ordubete bat plazan, bi aldarri eta goazen parrandara. Horrelako afera batengatik jaia bera bertan behera uztea planteatu ezin den gauza bat balitz bezala. Garunean bigarren zaintirtua izan ez dezagun. Ene ama, arreba, alaba edo laguna ez den bitartean, noski. Orduan, errealtateak emandako zaplasteko gordinegi denez, gauzak desberdin ikustea lortzen dugu (edo ez).

Bada ondokoak kontraesanik ez badu berarekin fidatzea zaila egiten zaila dionik. Ados, zaila da kontraesanik ez izatea, baina honenbeste ere ez da oso sana. Eta kontraesanekin jabetzean beste mila buelta ematen dizkiot bizitzaren esentziaren kontuari eta joder, are zailago ikusten dut guztia herri honetan. Ez dugu jaiotzea eskatu, ez dugu hil nahi, ez dakigu nola bizi eta badirudi denbora asko emango digula aldatzeak. Alegia, tontoak garela, behelaino artean zein eguzkitan.



Frantziako kontsentsuen amaiera

Hedoi Etxarte - @hedoi_etxarte
Peru Iparragirre - @nomadagaldua

#CharlieHebdo #Demokrazia #Ezkerra #Faxismoa #Frantzia #FrontNational



[Zilegitasuna eta erlijioa]

2015eko urtarrilak 8. Egun bat lehenago hil dituzte 12 lagun Charlie Hebdo astekari satirikoaren egoitzan eta kanpoaldean. Egun bat beranduago gertatuko da kaxer supermerkatuko erasoa.

Urtarrilak 8 eta Euskadi Irratiko kronikan kazetariak azaldu du Frantziako Errepublikak guztian elkarretaratzean egin direla eguerdian. Minutuko isilunea gorde dutela eta minutuko isilunea bi soinuk hautsi dutela: hasieran Notre Dame katedraleko kanpai hotsek, amaieran Marseillarrak.

Notre Dame eliza bat da. 1905ean egin zen Frantzian estatua eta eliza bereizteko legedia, baina ordu laurdenero jotzen du eliza kristauko kanpaiak: goizeko zortzietatik gaueko bederatzietara.

Marseillarra Frantziako Errepublikako ereserkia da. Ereserkiaren testuinguruari buruz, Frantziako Iraultzan sortu ziren hitzei buruz, bada antologia bat bere hitzaurrean iraultzan abestiek jokatu zuten rola aztertzen duena –Gallimard-en poesiako bilduman–: Chansonnier révolutionnaire (Michel Delon, Paul-Édouard Levayer. Paris: 1989). Bilduma 1989koa da, iraultzatik bi mendera argitaratua. Baina baita Sobiet Batasuna eta demokrazia herritarrak jausi ziren urtekoa. Bi mendetan XIX. mende luzea (1789-1917) eta XX. mende laburra (1917-1989) isten dira: iraultza demokratizatzaileen bi mende. Eta emantzipazioaren frakaso handiaren ostean, 1990eko hamarkadan, historiaren amaieraren tesiak hasten dira indartzen. Gerra hotzak ez du zentzurik SESBik gabe eta erlijioen gerren, zibilizazioen arteko gerren, diskurtsoak erabiltzen ditu kapitalak nazioarteko politikan gailentasuna izaten jarraitzeko.

2015eko urtarrilak 8 da eta elizetako kanpaiek eta «Odol lohi batek gure ildoak busti ditzala!» predikatzen duen ereserki polemiko batek ireki eta isten dute isilunearen minutuko parentesia. Erlijioa eta politika –iraultzaile– odoltsua. Galdetzeko modukoa da ze zilegitasun duen, elementu sinboliko hauekin, adierazle huts hauekin, laiktasunaz eta konponbide politiko ez-odoltsuez jarduteko Frantziako Errepublikak. Inolako kontsiderazio geopolitiko eta historikoetan sartu gabe, horiek dira bere erritu elementuak.

[M11 alderantziz]

2004ko martxoak 11an 192 lagun hil eta 1858 zauritu zituzten Madrilen. Charlie Hebdo gertakizunaren kudeaketaren kontrakoa gertatu zen.

Jendeak ez zituen Acebes barne ministroaren hitzak sinistu Madrilen. Eta SMSen bidez elkarretaratzeak deitu zituen Alderdi Popularraren Genova karrikako egoitza nagusira: biktimekiko elkartasuna eta gobernuarekiko kritika bat etorri ziren. Ez zuen ezarritako botereak emozioa kontrolatzeko gaitasunik izan. Gobernuak 1978ko konstituzioaren inguruan batasuna eskatu zuen: estatu arrazoa.

Charlie Hebdo koaren ostean Hollandek laiktasunaren eta demokraziaren inguruan batasuna eskatu du (Fronte Nazionale kanpoan utzita). Kazetariak jazarri, kazetak itxi edo kazetariak hil dituzten 17 gobernu buruk bat egin dezaketen laiktasun eta demokrazia bat.

Oso handia izan zen Aznar buru izan zuen Madrileko manifestazioa M11ren ostean. Ibarretzek «son alimañas, son asesinos» esan zuen ETari buruz. Ordezkaritza politiko guztia (Arnaldo Otegi izan ezik) lerratu zen bertsio ofizialarekin.

Baina 2003an Gerraren aurkako mugimendu indartsua egon zen mundu guztian. Espainiako Erreinuan eta Madrilen ere bai. Gerraren aurkako mugimenduak ez zuen Saddam Hussein zuritzeko jokorik egin. Atzerri politika globalaren kontrako mugimendu bat zen. Beste herrialdeei gerra egiteko eskubidearen aurkakoa. Bushen «Terrorismoaren aurkako gerra»ren aurka zegoena, espektro zabaleko gerra zelako –gezurrean oinarritua aurrez Errumanian eta Bosnian bezala–, zibilak hiltzen zituelako eta neokoloniala zelako.

«Gerrari ez» edo «gerrei ez» lelo huts bat zen, jatorri ezberdinetako jendeak bere egin zezakeena. Mugimendu hark –eta M11ak– eragina izan zuen Raxoiren galera eta Zapateroren hauteskunde garaipenarekin. Baina Zapateroren hautaketa PSOEren zilegitasuna galtzearen hasiera izan zen. Krisi ekonomikoa iritsi eta PPren errezeta eta jokaerak zeuzkalako. Amador Fernández-Savater-ek landu izan du 2003 urruneko mobilizazioetatik 2011ko M15ra dagoen haria. M11ren osteko M14an taktikoki desplazatu zuten Alderdi Popularra eta PSOE

helarazi. M11koaren ostekoa mugimendu deszentralizatu bat izan zen, mundu mailan gertatu zena, leku bakoitzean ezberdin aplikatu zena, mugimendu sozialetako inertzia jaso bai baina zabala izan zen eta lehenengoz mobilizatu zen jende asko. M15a eta occupy desberdinak bezalaxe.

[Eta 2015eko Paris?]

Ia kontrako egoera batean gertatu dira Parisko atentatuak. Frantzian ez da egon inolako gerraren oposizioirik Libia bonbardatu denean: 30.000 hildako eta desagertu zortzi hilabetetan, azpiegitura guztien suntsiketa orokorra.

Ez da kritikarik egin Gobernuak Siriako mujahidinak lagundu eta erresistente gisa aurkeztu dituenean. Frantzia, bere inprobisazioan, Assaden aurkakoak laguntzen hasi eta Assad babestera pasa da.

Eta bereziki, gizarte zibila, ez da gai izan ez Sarkozyrekin –Boli Kostako gerran parte hartzea eta osteko afera neokoloniala, Libia 2011tik– ezta Hollandekin –Sirian eta Ukrainan– gerraren aurka mobilizatzen. Zibilizazioen talka balidatzen zuten nazioarteko kanpainetan Frantzia ez da soilik laguntzailea izan. Inspiratzailea, xaxatzailea eta buru izan da Libian, eta Obamaren ezintasun belikoak sortutako prudentziarengatik ez da Mendebaldearen eraso irekirik egon Sirian Assaden aurka –Laurent Fabius gogor saiatu zen arren–. 100.000 bizitza pikutara azken zazpi urteetan eskualde zabalean. Ukrainan ere, interesatu nagusia Alemania bada ere han izan da Bernanrd-Henri Levy gerra sustatzen.

Ez da paradoxikoa, Fronte Nazionale izatea, irmotasun handiena izan duena, esaterako, Libiako gerraren aurka. Bai gerra gertatu bitartean baita ondorengo errelatoaren kudeaketan.

Ezkerrik ez dago Frantzian. Ezkerreko Fronteko burua Maastricht babestu zuen Melenchon despota da, kazetariaren aurrean Sarkozy bezain harroa. Frantziaren eta Israelen arteko kolaborazioa aho txikiarekin salatzen duena soilik 2014ra arte. Ez da gai izan azaltzeko Frantzian egunotan gertatzen dena eta duela urte batzuk auzuneetan gertatutakoa –komisariak eta meskitak erretzea– segregazio sakon bat duen herrialde batean gertatzen dela. Ez dagoela demokrazia eta fundamentalismoaren arteko tentsiorik. Afera ekonomikoa dela, langabezia gora doala Frantzian, estatu ereduak huts egin duela eskolatik hasita, lurraldetasun eredu ez dela jasangarria, industriarekin ez dagoela proiektu zehatzik, nazioarteko politikak kalte besterik ez diola egiten Frantziako biztanleen bizikidetzari.

[Le Penek egituratzen du markoa]

2002an bigarren itzulira iritsi zen Jean-Marie Le Pen, baina 2007an lerratze mediatiko handi bat egon zen Sarkozyrekin batera Ségolène eta Bayrouk espazio handia izan zezaten –Le Pen minimizatzeke–.

2005-2009 urteen artean Alain Soral soziologo Fronte Nazionaleko zuzendaritzan egon zen. Posizio nazional-errepublikarretara eraman nahi zuen alderdia. Aldirietako gazteak Frontera gerturatu nahi zituen. Ezkerrearen eremu historikoetan diskurtso soziala instalatu nahi zuen (Hénin-Beaumont-eko alkatetza lortu zuen 2014an, FNren ikurretako bat).

Fronte Nazionalak lortu du –eta kasu Marotoz barre egitearekin Gasteizen– disi-

dentearen irudia ematea politika ofizialak prestigiorik ez duen garai batean. Katastrofe soziala duela hiru hamarkadatik aurreikusi dute. PSk baino gehiago defendatzen du ongizate estatua mediatikoki. Magrebekoen osteko belaunaldien aurrean berak du gerraren kontrako diskurtso bakarra. Eta gainera immigrazioaren aurkako diskurtsoa “orain” datozenei aplikatzen die bereziki. Muturreko identitate nazionala ordezkatzan duten Europako beste alderdi batzuekin gertatzen da: etorkinen ondorengoek haien atxikimendu nazionala demostratzeko babesten dute. Segurtasunaren diskurtsoa, diskurtso psikologista, arrakastaz aldarrika dezake FNk. Le Pen aita da originala, Sarkozy eta Valls kopiak.

Ezkerrak ez dauka proposamenik. Ez delako ez kritika ez proiektu ekonomikorik: ez du esaten ze Europa nahi duen, ez du muga politika ezberdinik proposatzen, Ezkerreko Fronteak Hollande babestu zuen, Hollande boterera iritsi eta Sarkozyren murrizketekin jarraitu zuen, atzerri politika berarekin. Joan den asteko Parisko hiltzaileek aipatzen zituzten dronek Yemenen 800 lagun hil ditzutela 2014an. Oso marginalak dira Boli Kostako gatazka neokolonialari egiten zaizkion kritikak.

[Frantziako Bosgarren errepublikako paradigmaren agortzea]

Chiracen obsesio bat zen «arku errepublikarra». Bigarren Mundu Gerraren osteko enuntziazio bat zen: demokratik populisten kontra (ezkerreko zein eskuineko). 80ko hamarkadatik taktika elektoral bat zen, zentro-eskuinak zentro-ezkerra babesten zuen FN ez zedin boterera inon iritsi, eta vice versa. Sarkozy jarri zuen zalantzan lehenengoz –FNko bozkak bere egin asmoz– eta azken udal eta eskualde hauteskundeetan oso emaitza onak lortu ditu Fronteak.

Hori izan da azken hamarkadetan Frantzian egon den polarizazio bakarra: demokratik eta faxistak. Ezkerrearen beste frakaso bat.

Kazetariak sistematikoki mespretxatu dituzte FNko eledunak. Baina frantses arrunta ere mespretxatzen da sarri Parisko elite kulturaletatik. FNren hauteskunde arrakastak ere badu zerikusia jendeak bere burua FNren eledunekin identifikatzearekin: jende arrunta dira eta jende sofistikatuak haiei buruz barre egiten ari da. Irabazteko guztia dauka FNk: ez du boterea inoiz kudeatu, ez du nazioarteko ekibalentziarik, ez du inor ezkerrean sinesgarritasunez estatu sozialago eta berdinzaleago bat aldarrikatzeko, ez du inor eskuinean sekuritarismoan leziorik emango dionik.

Igandeko Parisko manifestazioan Netanyahu egon zen. Baina Marine Le Pen ez. Netanyahu da 2014an 2.192 palestinar hiltzearen arduraduna (tartean 13 kazetari, Haaretz kazeta israeldarrak adierazi bezala). Marine Le Peni ezin zaio halakorik egotzi baina demokraten klubetik kanpo uzten dute. Jean-Marie Le Penek esan zuen haien mobilizazioa hauteskundeak izango zirela: Keep calm and vote Le Pen. Ez daukala label demokratikorik Hollandek.

Asteon Charles-De-Gaulle hegazkin ontzia bidali du Hollandek Arabiako Golkora, gerra jarraitzera. 580 lagunek egin zuten euren buruaz beste 2014an Frantzian, langabeziarengatik.



Ajaccio, Badalona eta Gasteiz

Juan Etxenike

#EusalHerria #Grezia #Independentismoa #Kortsika #Krisia #Nazionalismoa #Xenofobia

Batzuren ustez 2010 urtetik aurrera, zorraren **krisiak** **Europar eragindako aldaketa politikoak historia liburuetan** azalduko dituzte. Momentuz dakigun gauza bakarra, Grezian, austerizidioaren aurkako koalizio bat gobernuan sartu dela, baina, ezin izan dio “*Shock doktrinari*” aurre egin eta murrizketak, pribatizazioak eta neurri ekonomikoak bere horretan mantendu ditu. Europako beste herrialdeetan ikusteke dago noraino herritarren saminak nola eragiten duen botere politikan. Hala ere “aldaketak” beste osagai batzuk dakartza, momentuz, iceberg baten kasuan gertatzen den bezala bakarrik agerian dagoena ikusten uzten duena. Hots, identitatearen inguruko gatazkak.

Orain arte Greziari buruz hitzegin dut, batez ere izenburuetan ez dauden errealitateak ekartzeko asmoarekin.

Aurten, paralelismoak marraztea da nire helburua, hango errealitatea eta hemengo hurbildu edo konparatzeko, ez bakarrik Grezian eta Euskal Herriaren artean, baita munduko beste hainbat tokikorekin ere.

Eguberriko istiluak Korsikan

Korsikarekin hasiko gara. Aurreko abenduaren 18an, Frantziar estatuko eskualde hauteskundearen ondorioz, Korsika osorako gobernu independentista da lehenengo aldiz historian. FNLC talde armatuak 3 urte lehenago bere jarduera armatuari bukaera eman zion. Komunikatuan independentziara bideratuko duen bide politiko berria iragarri zuten.

Gobernu independentistak kargu hartu eta 6 egun geroago, gabon gauean, Ajaccio hiriko suhiltzaile zerbitzuek zabor ontzi bat sutan zegoela eta dei bat jaso zuten. “Jardins de l’Empereur” auzora suhiltzailearen kamioia hurbildu zenean, **harrikaz eta makilez jaso zituzten**, laguntzera joan zen polizia autoak ere hamar lagunez osatutako taldearen eraso jaso zuen ere. Erasotzaileek “*Korsikar madarikatuak*” ohikatu zieten suhiltzaileei eta polizia.

Ondorengo goizean, jendea **prefeturaren** eraikinaren aurrean elkarretaratu zen **korsikar banderarekin**. Suhiltzaile eta polizia elkartasuna erakustez gain **segurtasun gehiago eskatzen zuten**. Hortik manifestazioan hurbildu ziren eraso gertatu zen “Jardins de l’Empereur” auzora eta bertan zegoen **kebab jatetxea eta mezkita erasotu zituzten**.

Ez da lehen aldia horrelakorik gertatzen denik. 2005ean ere Bastiako futbol zaleek arabiar jatorrizko hainbat gazterekin istiluak izan zituzten. “Corsi Clandestini” izeneko talde armatu berria berri bat “arabiarren aurka” borrokatzeko asmoa zuela iragarri zuen. Marie Peretti-Ndiaye soziologoak urteak daramazki Korsikako arrazakeria aztertzen. Bere esanetan, **pa-**

radojikoki aurreko abenduaren 27an manifestazioan, **independentistek** **seguritate indar gehiago aldarrikatzen ari ziren**.

Konspirazionismoan erori gabe deigarria da horrelako **probokazio** bat suertatzea, hain zuzen Korsikako asanblada eta gobernu independentisten eskuetan egon eta sei egunetara. Korsikako hauteskundeak emaitzak aipamen gutxi izan dute frantzia zein nazioarteko hedabideetan, arreta nagusia FNk PACA eta Nord Calais lortutako emaitzetara joan da. Hala ere gai honi buruz galdetu zieten Manuel Valls eta Jacques Phillipot-i. Biek bat egin zuten haien analisian, **independentistek ezin dute korsikeraz mintzatu** asanbladan. Manuel Vallsek independentisten jarduerari **marra gorriak** jarriko dizkiete gogorazi zuen ere.

Ajaccioko alkateak aspalditik **drogen kontrako jardueraren lasaitzea** salatzen ari zen eta horren ondorioz hainbat **auzoetako seguritatea andeatzen** ari zela ere salatu zuen. Frantses estatua, goraldi gerrazale eta sekretario baten erdian dagoela ezin dugu ukatu eta behar bada korsikako auzian bere aldeko mugimendu taktikoa sortzea lortu du eta horrekin batera txeki txuria lortu du Korsikara polizia gehiago bidaltzeko eta prefetaren garrantzia nabarmentzeko.

Ez da gezurra, Korsikan arrazakeri arazo bat badagoela, hala ere, Marie Peretti-Ndiaye dioenaren arabera **ezin da Korsikar nazionalismoa eta arrazakeriaren arteko harreman zuzenik trazatu**. Ajaccio eskuineko hiri bat izan da beti, 2012ko lehendakaritzarako hauteskundeetan Sarkozy izan zen bozkatuena eta haren ondoren Marine Lepen. Aurreko hauteskundeetan Korsikako nazionalistek Lepeni kendu bazioten bigarren postua lehenengoa “Le Rassemblement” entzat gelditu zen. Beraz arrazakeriaren arazoa ezin da nazionalisten ardura izan, edo behintzat bere osotasunean. France 3 eta iTele mikroetan hitzegin zuten “Jardins de l’Empereur” auzoko bizilagunak. Haien hitzetan ez dute hain metropolitarra den “banlieue” fenomenoaren haien irlan ikusi nahi. Kontinentean huts egindako eredutzat hartzen dute. Emakume batek arrazakeriaren kalifikatiboa arbuatzen zuen hedabideetan, “*hemen herri bat hitzegiten ari da eta hobe duzue ondo entzutea!*”.

XXI mendearen hasierak Europar mendebaldean estatutik gabeko nazioen gatazkei lotutako borroka armatuaren estrategiaren sakoneko birmoldaketa ezagutu du: Irlandan, Euskal Herrian eta Korsikan batez ere. Gatazkak birformulatzen joaten dira gizartean, edo hobeto esanda, gatazka horiek formulatzeko modu berriak ager daitezke aldaketa horren ondotik.

Kataluniako Albiol eta Euskal Herriko Maroto

Katalunian horrela gertatu zen PxC alderdiarekin, Josep Angladak “etxeokoen” kontzeptua sortu du Katalunian azken 20 urteetako etorkinak gainontzeko hiritar katalanetatik bereizteko asmoarekin. Bere aldeko sustengua hazi zen baina hedabideen sustengurik gabe eta mobilizazio antifaxistaren ondorioz arnasik, gabe gelditu zen. Aitzitik Badalonako PPko alkateak, Xabier Garcia Albiok hartu dio lekukoak. Euskal Herrian Javier Marotok ere bere “experimentua” egin du laguntza sozialen gaiarekin eta Gasteizen mezkitaaren aurkako mobilizazioekiko atxikipena agertu du ere.

Ajaccio, Badalona eta Gasteiz badituzte hainbat ezaguarri amankomunean. Hiri ertainak dira, soziologia independentista duten eskualdeetan daude baina aldi berean badirudi hiru hiri horiek hegemonia independentista horietik at daudela. Ajaccio betidanik Frantziar zentro eskuineko RPR eta gero UMPren eskuetan egon da, Gasteiz da EAEn PPri alkatetza emateko aukera ematen dion hiri handiena eta Badalonan PSOn urteetako hegemoniatik udala PPren eskuetan egon zen aurreko udal hauteskundeak izan arte. Hiru hiri horietan arrazakeria eta xenofobia izan daitezke **krisiak** **eragindako hiritarrak, ezkerreko desilusionatuak, eskuineko nazionalista despistatuak eta unionistak** batzeko ideiei transbersal bat, eta ederki baliatu dute nahiz eta aritmetikak haien aurka jokatu duen azken hauteskundeetan.

Eta Iruñean?

Nahiz eta gaur egun hiru hiri horiek ez daude indar xenofobo baten eskuetan egoteko arriskuan, argi dago suertatutako fenomenoak arreta deitzen dutela eta etorkizunean, berriz kalean ikus ditzakegu adierazpen xenofoboak.

Bitartean Iruñea daukagu, Joseba Asiron eta beste hainbat zinegotzi bulegoko berogailutik aldendu ziren Idoia eta Patxiren etxe hustutzea geldiarazteko; udaleko hainbat eraikin etxebizitza sozialetara bideratzen dituzten bitartean. Iruñean, nahiz eta eskuinak betidanik poterea izan duen, momentuz, UPNk ez du hartu Maroto edota Albiolen bidea. Orain oposizioan dagoela, udalak etxebizitza sozialak eskaintzeko proposamenari “deia efektua” sortuko duela erantzun dio. Baina hori bakarrik, ez dirudi Nafarroako eskuin erregionalistak bide xenofoboa hartuko duenik.

Talamonik Korsikeraz hitzegin zuen bere lehenengo diskurtsoan.
<https://www.youtube.com/watch?v=KptBSHyWGbo>

Ospakizunak Korsikako independentisten garaipenaren harira
https://www.youtube.com/watch?v=z5sPl6h_kSo

Nabaritu al duzu zure inguruan EHra azken urte
<https://www.youtube.com/watch?v=8iECJGgRLK0>

Manuel Vallsen Marra Gorriak
<https://www.youtube.com/watch?v=3T8d-TzJxPI>

Manifestazioak Ajaccion
<https://www.youtube.com/watch?v=NzHZM8nPICw>

Manifestazioa Korsikan – Ez ditugu banlieues nahi
<https://www.youtube.com/watch?v=vZ4H-fQ8NGI>

Ez dago korsikar arrazakeria (eta hura aipatuz benetazko arazoak izkutatzeko ditugu).
<http://www.slate.fr/story/111965/racisme-corse>



Localbier.com
artisan garagardo bilatzailea

Aurkitu garagardo bereziak edonon zaudela ere!

Zer dira ekonomia

Álvaro Porro
#Ekonomia #Ekonomia #Eraldatzailea #ESE
#ESS #EST #Kooperatibismoa

Orokorrean instituzioetan nahiz medio handietan eredu makroekonomikoaren eztabaida bi polo edo ardatzen inguruan garatzen da. Alde batetik, oinarri sozialdemokratako- **neokeynesianismoa**, inguru-
men dimentsioa gehiago edo gutxiago barne harturik Green Deal bertsio berriagoetan, baita ongizate Esta-
tuaren defentsa nahiz austeritatearekiko aurkakota-
sun gradu ezberdinekin ere. Bestetik, ikuskera **neoli-
berala**, gastu publikoaren murrizketa sakonaren alde
eta birbanaketa tresna batzuk mantentzeko sentsibi-
litate apurrarekin.

Makro maila honetan, garrantzia marjinalarekin, erro **ekologista** duten beste zenbait planteamendu ere
sortu dira, “hazkunderik gabeko oparotasuna” edo
“steady state economy”, besteak beste. Makro mai-
lako derrigorrezko eztabaida honetatik harago, ba-
dira gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari diren
errealitateak, tablero honetan erraz kokatu ez arren
eta mikro mailakoak badirudite ere, makro mailako
eztabaidara eraman gaitzaketenak. **Eraikuntza eta
berrikuntza sozioekonomiko eraldatzailearen** fe-
nomenoaz ari naiz, kuantitatiboki garrantzia mugatu
baina hazkorra duena.

Akotatu eta neurtzeko zaila da, baina zenbait esti-
mazio berriren arabera ekonomia sozial eta soli-
darioak Bartzelonako BPGaren %7a osatuko luke,
4.600 entitate eta enpresetan oinarrituta. Diment-
sio kualitatibotik begiratuta, bereziki arlo lokaletan,
haien garrantzia espezifikoa are handiagoa da. Izatez,
maiatzaren 24an udal gobernuetara heldutako zen-
bait talde munizipalistak tokiko garapen eta sustapen
sailetan sartu dituzte. Gehiago edo gutxiago gure hiri
eta sareetan sortzen ari diren ekonomia eraldatzaile
hauen ekosistemek honakoak hartuko lituzkete bar-
ne: **ekonomia sozial eta solidarioa, ekonomiakola-
boratiboak, ekonomia komunitarioak, ekonomia
feministak, ekonomia kooperatiboak, ekintzailet-
za soziala eta ekonomia zirkularra**, besteak beste.

Sortzen ari den behar handietako bat, bai aktibismo-
tik baita administraziotik ere, fenomeno hau prozesu
isolatu bezala aurkeztu ordez komunitate edo arlo
ezberdinak praktika sozioekonomiko berriak esperi-
mentatu eta eraikitzen dituzten esperimentazio eko-
sistema bezala aurkezteko beharra da, haien bagaje,
kultura eta aukera nahiz lehentasunen arabera. Arti-
kulu honetan, katedra ezartzeko edo kalifikazio sozial
agentziak imitatzeko inolako bokaziorik gabe, baina
debatea ireki eta bereziki errealitateak ikusarazteko
asmoz, ekosistema honen argazkia ateratzen saia-
tuko naiz, kontzeptuetatik baino praktiketatik. Ziur
nago arriskuak hartzen dituzten espazio ez puruetan
daudela askotan hausturarik handienak erantzuki-
zunaren moral weberianoaren ikuspegitik. Hau da,
ekintzen benetako emaitzak lehenesten dituztenak,
helburuen purutasunaren ordez. Lehen desafioa ma-
pan sartuko ditugun fenomenoen mugapena egitea
da. Hiru irizpide proposatzen ditut:

- Nolabaiteko **paradigma-marko kontzeptuala** ga-
ratu izana. Ez da beharrezkoa doktoretza tesirik edo
Ekonomiako Nobelik egotea, baina bai marko minimo
bat.
- **Mugimendu sozialerako** nolabaiteko bokazioa
izatea. Hau da, momentuz era desartikulatuan bada

ere, gizartean, eztabaida politikoan eta politika publi-
koetan eragiteko bokazioa.

- Garrantzitsuena zalantzarik gabe: **hegemonikoak
ez diren ekonomia egiteko praktika, proiektu eta
esperientzia multzoa** barne hartzea.

Baliatzen ditudan ardatzak ez dira posible diren
bakarrak, baina ezberdintasunak erarik ilustragarrie-
nean erakuts zitzaketenak direla iruditut zait. Ardatz
horizontalak jarduera produktiboaren inpaktu sozial
eta ekologikoa barneratu edo minimizatzeke konpro-
misoari egiten dio erreferentzia. Ardatz bertikalak
botere banaketa, balore eta errendimendu banatua-
go edo berdinzaleago baterako estruktura sortzearen
aldeko konpromisoa adierazten du. Noski, edozein
argazki bezala, errealitatea izugarri sinplifikatzen da,
berezitasunak puztu egiten ditu eta posizioek zent-
zua erlatibotasunetik hartzen dute. Hortaz, begira
dezagun urrunetik hurbiletik baino eta ikus dezagun
ea amaieran sinplifikazio honek oraindik ikusten ez
duenari ekosistema hau begien bistan jartzen jart-
zen.ekonomia-eraldatzaileen-mapa

Ekonomia kolaboratiboak

Elkarbanatzea (*ingelesez sharing economy*), **elkar-
trukea baina baita ondasun, zerbitzu edo ja-
kintzak berdinen artean edo kontsumitzaile eta
enpresen artean saldu edo alokatzea ere** ahalbi-
detzen duen unibertsoa da. Gehienetan oinarri digi-
taleko proiektuz, enpresaz, komunitatez eta platafor-
maz osatua dago.


Seguruenik egun polemika eta *punch* mediatiko han-
diena eragiten duen ekonomia eraldatzaileetakoa
da. Lehen **Ouishare Festa**, Paristik kanpo egindako
erreferentziazko ekitaldia, Bartzelonan izan zen joan
den azaroan. Latitude hauetan komunitate kolabora-
tiboaren potentziaren erakustaldia izan zen.

Zaila da mugak definitzea, izan ere, aterki horren az-
pian enpresa multinazional oligopolikoak (airbnb,
uber) eta auzo arteko elkartruke proiektuak topa dai-
tezke, Wikipedia bezalako komunitate globaletatik
pasata. Honi zor dio eskeman duen zeharkakotasuna.
Batzuentzat ahulezia izan liteke ekonomia transfor-
matzaile batentzako, beste zenbaitentzat bertan dat-
za bertan dago bere indargunea, enpresa eta oinarri
digitaleko ohiko ekintzailletza espazioetan sartzeko.
Haien arriskuen eta potentzialtasunen errepasoa **Op-
cions aldizkari**ko 48. zenbakian aurki dezakezue, **Al-
ternatiba Ekonomikoetan**.

Unibertso zabal honetan bokazio eraldatzaile argia
duten proiektu batzuk topa daitezke, ekoizpen proko-
muna bezala defini genitzakeenak: dimentsio hierar-
kiko eta kontratuzkoa oso mugatutako estrukturetan
oinarritu ohi dira eta ekoitzitakoak lizentzia libre edo
irekiak izan ohi ditu.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS)

Latinoamerikako ekonomia popularraren eta Euro-
pako kooperatibismoaren nahasketatik sortutakoa
dela esan genezake. Jatorria **Porto Alegreko Foro
Sozialean** (Brasil) du. Oinarri aktibistako unibertsoa
da, bai eraldatzeko bokazioagatik eta baita bere bult-
zatzaileek konposizioagatik ere. Horri esker ardatzen
koadrante eraldatzaileenetan kokatzen da.




Zabalpen unean dago (Kataluniako 4. ESS feriak
20.000 pertsona inguru erakarri zituen eta antzerako
zerbait pasatzen da Madrilgo Merkatu Sozialaren Fe-
riarekin). Hala ere, erronka bestelako sektore sozial
eta ekonomikoetara heltzea da, zirkulu aktibista eta
endogamikoetatik irtenda. Izatez, presentzia handia
du mugimendu sozial eta asoziatiboetan baina oso
txikia enpresa konbentzionalaren munduan. **Oso era
garbian betetzen ditu hiru irizpideak eta ongi po-
sizionatuta dago munizipalismo eredu berrietan**,
bereziki kontakizunean. **Kooperatibetan** pentsatu
ohi da baina bere baitan hartzen ditu **fundazioak**,
**asoziazioak eta entitate juridikorik gabeko proie-
ktuak**. Espainian eta Katalunian nahiz maila globa-
lean ESSak artikulazio federatu interesgarriak eraiki
ditu, besteak beste XES, REAS edo RiPESS.

Ekonomia Kooperatiboa (lan sozietateak barne)

Kooperatibismoaren sektore bat ESSaren bultzatzaile
izan da, baina kooperatibismoa bere osotasunean ez
da ESSarekin identifikatzen. Eskeman duen kokape-
na kooperatiba edo lan sozietate izateagatik sektore
konbentzionalarekin alderatuta duen enpresako bo-
tere eta jabetza banaketa bezalako elementu dife-
rentzialengatik da. Hala ere, kooperatiba askotan, be-
reziki eskala handiko nekazal, industrial eta banaketa
kooperatibetan (Eroski) enpresa konbentzionaleko
zenbait praktika erreproduzitzen dira.

a eraldatzailak?

Funtzionamendu hierarkikoa;
botere kontzentratua



Funtzionamendu horizontala;
botere banatua

Beste ardatzari erreparatuz gero, nire esperientziaren arabera, ohiko enpresarekin alderatuz, kooperatibek haien eragin sozial eta ekologikoarekiko kezka handiagoa izan ohi dute, bai haien DNAn dagoelako, jabetza/kudeaketa demokratikoagoaren ondorioz edo erlasionatutako sektoreetan egiten dutelako lan. Baina denetarik dago, horregatik du posizio hori ardatzean.

Edozein kasutan, ekonomia eraldatzailen hegazkin-ontzia dira, hamarkadetan zehar BPGan pisua duen ekonomia erreala eraikitzen metatutako bagajea eta zeharka ekonomian eta gizartean presente egon izanagatik. Askok haien heriotza sinatu nahi izan zuten Fagorren erorketaren ondoren (Euskal Herrian sortutako munduko talde kooperatiborik handieneko enpresa klabea Mondragon taldekoa), baina errealtateak berretsi egiten du orokorrean kooperatibak enpresa konbentzionalak baino erresilienteagoak izan direla krisiaren aurrean.

Ekonomia Komunitarioak

Termino honekin barne hartu nahi ditugu beharrak asetzeko artikulazio kolektibo horiek guztiak. Haietan borondatezko lanaren pisua funtsezkoa izan ohi da eta sarbidea ez da izaten ordainketa, komunitate edo talde baten parte izatea eta parte-hartzea baizik. Hemen sartzen ditut baratze komunitarioak, kontsumo taldeak, elkartruke-sareak, denbora-bankuak edo hazkuntza banatuko taldeak. Dimentsio komunitarioak eta normalean asanblearioak ardatz bertikalean botere banatuaren adibide argien bezala kokatzea eragin du.

Beharbada gutxien garatutako aterki kontzeptuala da eta ondorioz gutxien artikulatutako sektorea. Nolabait ESSren parte da eta oso lotua dago zaintza ekonomiarekin, baina egia esan ESSren sareetan haien papera bigarren maila batean dago, goranzko joera badu ere. Haien oinarritzko diskurtsoa izanda ere, ez dago argi zenbateraino dagoen sartuta maila popularrean edo krisiak gogorren astindutako auzo eta sektore sozialetan. Opcions aldizkariko 44. zenbakian haien laburpen eta katalogoa dago.

Guztion Ongiaren Ekonomia Ekonomia feministak

Sortzez beste ekonomia eraldatzaila ereduak baino ohiko enpresa munduari lotuago dago. Izatez, enpresa konbentzional bat trantsiziora eramateko potentziala du. Enpresaren norabidea 5 printzipioren arabera inspiratzen duen balantzea du. Batzuentzako Gizarte Ardura Korporatibo zintzoagoa besterik ez da (ez dena gutxi). Beste batzuentzako paradigma ekonomiko berri eta eraldatzaila baten planteamendua da, ohiko enpresa munduan sartzeko gaitasuna duena.

Ardatzean duen kokapenaren zergatia jabetzaren eta boterearen banaketan duen enfasi eskasagoaren ondorio da, nahiz eta barne demokrazia eta soldata ratioa kontuan hartzen dituen. Bere indargunea eragin sozial eta ekologikoarekiko konpromiso sakona da, horregatik hartzen du goiko eskuineko koadrante osoa. Jaiotzez oso lotua egon da sortzaila izan duen ekonomista austriar bati. Honek pertsonalismo kutsua eman dio, baina pisu mediatiko efektiboa ere. Valentziako gobernuko ekonomiko konseller berria, Rafael Climent, paradigma honen defendatzailea da.

Ekonomia Soziala (sarbide sozio-laboralekoa)

Maiz etiketa hau erabiltzen da ekonomia eraldatzaila unibertso osoari buruz aritzeko, baina nik kasu honetan baztertze arriskuan dauden kolektiboen sarbide sozio-laborala helburu duten enpresa, fundazio edo lanbide zentro bereziei deitzeko erabili dut. Administrazioa sektore honi oso egokitua dago eta politika erroto eta konkretuagoak ditu.

Bere indarguneak artikulazioa, ingurune oso konplexuetan duen eragin sozial positibo argia eta administrazioarekin batera duen lan ibilbidea dira. Azken indargune hau dependentzia ekonomikoaren ikuspuntutik ahulgunea ere izan liteke. Batzuen ustez ez litzateke positiboa izango ekonomia eraldatzailak zenbait kolektiboren paliatibo izatera hartzera mugatzea.

Beharbada artikulazio berriena duen ekonomia eraldatzaila mugimendua da, analisi marko oso potentea izan arren eta arlo akademiko naiz aktibistan hazkunde fasean dago. Egun bizitzeari merezi duten bizitzak ahalbidetzeko ekonomiako praktika eta proiektuak biltzen ari dira. ESSarekin erlazio kontzeptual eta soziologiko estua du. Horregatik kokatu dut era bateratuan. Alicia Riusek oso ongi laburtu zuen bezala: “Feminismoak patriarkatuarentzat ekonomia sozial eta solidarioa kapitalismoarentzat bezalakoak dira”. EF emakumeek egindako ESS proiektuak direla esango bagenu errealtatearen gehiegizko sinplifikazioan jausiko ginateke, klabea ez baita proiektuetako parte-hartzaileen sexua, ikusezin egindako zaintza ekonomiako proiektuak lehen planora ekartzea baizik.

Badira bestelako ekonomia eraldatzailak ere baina ez naiz ausartu grafikoan sartzera, ez bainago ziur egun dauden egoeran lehen aipatutako hiru irizpideen baitan kokatu daitezkeen edo soilik haietako bakarraren inguruan. Esaterako, paradigma bakarraren ingurukoak (ekonomia zirkularra), praktika baten ingurukoak (ekintzailatza sozial edo berdea), sektore ekonomiko bakarraren baitakoak (ekonomia berdea), aipatutakoen azpitaldea osatzen dutenak (ekonomia zuzenak, ekintzailatza kolektibo eta eraldatzaila...) edo adar akademiko soila (ekonomia ekologikoa). Zorionez, egoera etengabeko eboluzioan ari da.

Ekonomia hauen zabalpenerako erronkak eta potentzialtasunak izugarri handiak dira, elkarriketak jarraitu beharra du.... jarraitu egingo dugu.

Ekonomia eraldatzailen inguruko zenbait datu kuantitatibo:

- Kataluniako merkatu soziala (katalanez)
- Kooperatiben barometroa (katalanez)
- Mundu asoziatiboaren panoramika (katalanez)
- Kontsumo kolaboratiboaren inguruan (ingelesez)

Álvaro Porro: Opcions eta estarter.cat proiektuetako fundatzaileen artean dago. Gaur egun Bartzelonako Tokiko Garapen Agentzian “Beste Ekonomiak eta Hurbiltasuna” sail berriaren eraketaren buru da.

Artikulu hau hemendik itzulita dago:
<http://opcions.org/es/blog/que-son-las-economias-transformadoras>

Galderak

Naroa Elortza

#DemokraziaEkonomikoa #EraldaketaSoziala #Hezkuntza #Komunitatea #Koop #Kooperatibak #Parte-hartzea

Parte-hartzearekin bueltaka ibili nintzen pasa den mezuan, nioen parte-hartzeari buruz hitz egiterakoan kontuan izan behar direla hainbat aspektu, parte-hartzea bultzatzeko helburuak oso ezberdinak baitira. Kooperatibak direla parte-hartze demokratikorako figura esanguratsuena iruditzen zaidala ere nioen. Baina ai kooperatibak! Zenbat kooperatiba ditugun inguruan izaera juridiko hutsa dutenak kooperatibo!

Nork. Zer. Nola. Zergatik. Zertarako.

5 galdera. Kooperatiben funtsa deskribatzeko nahikoa ditugu 5 galderok. Gure izatea zalantzan jartzeko soberan.

Nork?

Subjektu aktibo eta antolatuak izan behar dira kooperatibako protagonistak. Proiektua bere sentitu behar dute, dagozkien eskubide eta betebeharrak bere gain hartuz.

Hezkuntza integrala gakoa izango da bide honetan, hezkuntza tekniko, soziologiko eta filosofikoa. Profesional onak izateaz gain, kooperatibistak izan behar baitira kooperatibako kideak.

Zer?

Gizartearen beharrei erantzungo dien kooperatiba izan behar da. Gizarteko pertsonengan ez ditu soilik kontsumitzaileak ikusi behar, komunitateko kide, beren beharrak asetzeko helburua izan behar du kooperatibak.

Kooperatibaren produktua bera ere izan behar da bere printzipioen koherentea. Autoeraketa ekonomikoak ekologikoa ere izan behar du, ezin da helburu ekonomikoen bila edonola edozer ekoitzi. Guztiak izan behar du logika bera.

Nola?

Parte-hartzean oinarrituta. Parte-hartzea dimentsio guztietan, norbanako guztien eskutik. Kooperatiben ekarpen nagusia seguruenik parte-hartze instituzionala da, organo sozialen bitartez bermatzen da kooperatibako (baz)kideek ahotsa eta botoa izatea. Hala ere, egia da kooperatiben dimentsioek eta egungo enpresa errealitateek bilerak eta organo sozialetako parte-hartzea murritzten dutela. Horregatik, hainbat erakundetan egiten ari diren gisara organoen funtzionamendua optimizatu eta parte-hartzea eraginkorragoa (eta errealagoa akaso) izatea lortzeko estrategiak bilatu behar dira.

Kooperatiba gehienetan, baina, lanpostu mailako parte-hartzea ez da gehiegi landu, azken urteotan indartzen ari den arren. Aspektu horretan erakunde kapitalistek badirudi aurea hartu dietela, helburu ekonomiko eta efizientziara begirakoak izanda.

Parte-hartze integrala behar da, beraz. Parte-hartzea lanpostuan, kudeaketan, jabetzan eta emaitzetan.

Zertarako?

Galdera garrantzitsuena, oinarritzkoa, nire ustez. Kooperatibak ez dira enpresa hutsak, beren helburua ez da arrakasta ekonomikoa. Arrakasta ekonomikoa tresna hutsa da, gizartearen garapena, eraldaketa soziala, errealitate bihurtzeko.

Komunitatea ardatz eta helburu du kooperatibak, demokrazia ekonomikoa, ongizatea eta pertsonen garapena bultzatuz. Lekuko komunitateko parte izanda, gizarte eragileekin lankidetzat bultzatu nahi du, enpresatik harago joateko bokazioz.

Egungo gizartean, kooperatibak ez ditugu soilik erakunde edo enpresa gisa ulertu behar. Lan-komunitateak komunitate handiagoan hartu behar du protagonismoa, bera ere subjektu antolatua izan behar da, herrigintzako eragileetako bat izan behar da. Ezin du kooperatibak irla bihurtu, eta bere ongizate propioa elikatu, inguruneko beharrei erreparatu gabe.

hauetan etorritakoen gainera zurrumurru edo iruzkin berezirik? Nola egin ezkerretik xenofobiari harresi bat eraikitzeko? Nola eraiki dialektika humanista bat, psikologismoan erori gabe? Beste hitzetan, ze nolako diskurtso eraiki behar dugu etorkinekiko mesfidantza adierazten duenarekin hitz egiteko betiko irain automatikoak (faxista, arrazista...) bota aurretik?

“Euskal Inteligentzia Zerbitzu Nazionala” ?!

Ibai Esteibarlanda

-Inteligentzia Zerbitzu Nazional bat beharko likek Euskal Herriak Hi! – eta eskuartean duen garagardo botilari trago luzea eman dio hustutzeraino Iratik, Joni aurpegia zurbiltzen zaion bitartean.-

-Inteligentzi ... zer? Noiztik joaten zaik hainbeste burua lau garagardo xixtrinekin?

-Gure herri desordenatu hau egituratzeko beste hainbat proiektu bezalatsu Inteligentzia Zerbitzu Nazionala ere behar diagula: Institutuzio Nazional bat, kirol Federazio propioak, Estatistika Agentzia Nazionala, zazpi probintzietan zehar antolatutako Unibertsitate Sistema propioa, Artxibategi Nazionala, ... eta naiz eta doinu arraroa duen Euskal Inteligentzia Zerbitzu Nazionala!

-Institutuzioak eta selekzioak tira, baina Inteligentzia zerbitzu bat? erotu egin gaituk ala?

-Erotu ez baina Nazio Burujabe bat izan nahi badiagu hori ere beharko diagu ezta?

– ingurukoren batek “hori, hori!” oihukatzearekin batera ahotsa jeitsi dute bi gazteek.

-Ez diagu ba nahikoa, zelatatzen eta egurtzen gaituzten Espainiako zein Frantziako polizia eta inteligentzia zerbitzuekin ala?

-Ez, ez ... propio bat, Euskal Inteligentzia Zerbitzu bat esan nahi nian. – elkarrizketa klandestinoak bailitzan ari dira aurpegiak ia elkar ukituz eta ahots baxuarekin-

-Propioa? Euskalduna? Guk gure buruak zelatatzeko eta jendea kontrolatzeko ala? Ertzainek baditek beraiena eta Foralek ere seguru baietz ... EHko polizientzat inteligentzia zerbitzuak? Orain botako duk Polizia Nazional eta propioa ere behar diagula ezta? uste baino pitzatuagoa hago Irati.

-Euskal Poliziaren eztabaida beste baterako utziko diagu Jon, baina Inteligentzia Zerbitzu Publiko batek ez dik zertan poliziarentzat lan egin beharrik txo. Bere helburua, erabakiak hartu behar dituztenentzat informazioa bildu, berau aztertu eta aukera egokienak mahai gainean jartzea baino ez duk. Hori poliziarentzat egin dezakek edo enpresa, instituzio zein edozein kirol talderentzat.

-Hik nahi duana esango duk baina gaurdaino ez diagu horrelakorik ikusi eta hori ezinezkoa duk.

Beste hainbat esparrutan bezala gaiarekiko ezjakintasunak eta erronka zehatzei aurre egiteko tresna nazional propiorik ez izateak eztabaida antzuetan murgilarazten gaitu, etziko Euskal Herria gaurdanik eraikitzeko beharrezko estrategiak diseinatzea galareziz.

Inteligentzia zerbitzua

Inteligentzia (aurreko artikuluan azaldu bezala) lau fase dituen prozesu sistematiko bat da, eta prozesu sistematiko bat den heinean nahiko neutroa dela esan dezakegu (salbuespenak albuespen). Beraz inteligentzia prozesua antzekoa aplikatu dezakete: BND (Alemania) zein MI5 (Erresuma Batua) bezalako inteligentzia zerbitzuek; Audi, Mercedes eta Coca-Cola bezalako enpresa erraldoiek; Iran, Errusia zein Venezuela bezalako estatu indartsuek; eta zergatik ez Nafar Gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundia edo Udaletxe bat bezalako instituzio “txikiek”.

Guztiek dituzte erabakiak hartu beharra eta horretarako galdera zehatz batzuei erantzuna bilatu beharra: estatu quo-a zalantzan jartzen dutenak nortzuk dira, nola antolatzen dira eta nola haiek geldiarazi? zein auto modelo erosten du gehien jendeak, zergatik eta beraz nolako modelo berrietan inbertsioak egin hurrengo urteetan? zein da lurralde honetako langabezia tasa, zein sektoretan ematen da, zein bitarteko ditugu horri aurre egiteko eta nola sor ditzakegu lan postu berriak epe ertainean?

Nazional eta publikoa

Gure herria artikulatu, kohesionatu eta ardatz estrategikoetan (hezkuntza, ekonomia, lurralde antolamendua, osasuna, nazioarteko harremanak, kultura, ...) pausu egituratzaileak emateko bidean paper garrantzitsua joka dezake ikuspegi nazional horrekin lanean arituko den Agentziak: batetik, behar espezifikoak dituzten enpresa, instituzio, herri ekimen zein proiektuei inteligentzia zerbitzuak eskainiz; bestetik, unean uneko egoera sozio-politikoak aztertuz beharrezko iruditu ahal zaizkion azterketak egin eta Euskal Herriarren zerbitzura jarriz.

Pentsatzen jarritz gero, egunero hartzen dira erabakiak ikuspegi nazional eta egituratzaile horrekin: AEK bezalako elkarte batek euskal herriaren euskalduntze prozesu nazioanalaren inguruan; UEU bezalako unibertsitate batek euskarazko unibertsitate ereduaren zabalpenaren esparruan; Udalbiltza bezalako instituzio batek erronka estrategikoetan eta berau gauzatzeko eman beharreko pausu taktikoetan; Gaindegia bezalako behatoki batek epe motz, ertain zein luzean EH-aren eraikuntzan garrantzitsu izango diren gaiak aztertu eta ezagutaraztearen erronkan? OlatuKoop bezalako ekonomia sozial eraldatzaileko sare batek hurrengo erronkak zein norabidetan planteatu erabakitzeko; ...

Proiektua abian

Ezin gaitezke partida garrantzitsu hau jokatzten hasi aurretik joko kanpo geratu. Burujabe izateko egitura eta sare propioak behar ditugun bezalaxe Inteligentzia Zerbitzu Nazional publiko eta propioa beharrezkoa dugu.

Argi dago ez dagoela momentu honetan instituzio nazional ofizialik erronka honi eutsiko dionik. Beraz, etzi herri burujabe bat izan gaitezen gaur hartu beharreko erabakietan nola sakondu dezakegu?

Zein proiektu sortu beharko genuke gure Inteligentzia Zerbitzua diseinatu eta martxan jarri ahal izateko? Zein arlo eta proiektu zehatzi begira lan egin beharko luke? Nork beharko eta erabiliko lituzke zerbitzu horiek? Nork eta nola finantziatuko genuke bulego hori? Zein talde tekniko osatu beharko genuke gure behar teknikoak asetzeko? Non formatu ahalko liratezke gure herriko gazteak proiektu honetan parte hartzeko?

Galdera egokiak planteatu behar erantzun egokiak bilatzen hasteko. Guztion buruak norabide berean jar ditzagun eta has gaitezen pentsatzen eta hausnartzen, guztiok inteligentzia komunitatea eraikiz, erronka berri honen inguruko erantzun egokiak bilatzeko.

Atera ditzagun ideiak mahai gainera eta ekin diezaio-gun proiektua diseinatzeari!

Burdin eta kresala aroko pasadizoak

David Zapirain

#Donostia #Mitoa #Orreaga #Pasaia #Ukronia

XVI. mendean. Pasaia badi. Guillermo buru, Onofre, Gaspar, Adrian eta gainontzeko lagunek antolatu badi zaharkitua geratu da. Donostiak Kantabria aldetik ekarritako leinu berriak zein inguruko sendiek sare berriak ehundu dituzte. Badiaren inguruan etxe buruak gero eta ondasun gehiago pilatzen ari dira, Altzan, Pasaian, Basanoagan, Lezon, Trintxerren...

Etxeetan kontatzen diren istorioak, baina, Erroma eta Asturias dituzte hizpide. Gailentzen ari den mitoarekin sare berria puskatzear da. Mundu ikuskera horrek ez ditu denak asetzen.

Bailaran oin duten sendiek Ubillosen esku uzten dute istoria integratzailea sortzea, Ubillosek negozioetarako sen berezia erakutsi duelako eta senidetza ugari batzen duelako. Ordezkatzen duten komunitateak mito sendoa behar du, tokia ez galtzeko botere banaketan, gainontzeko komunitateekin maila berean aritzeko.

Ubillosek ontzira leku garrantzitsua kudeatzen du, Piedadean. “In gratiarum actione pro victoria obtenta...” 1637an ke usaina da nagusi badian. Trintxer baserria mendi magalean bazegoen ere, erabat kixkali dute Condéren gizonek. Zer esanik ez beherago zeuden etxe guztiak. Orereta zaharraren gainean zegoen La Renterian ere harritzko 7 etxek baino ez diote suari eutsi. Portuko sarreran zaintzen zituzten habiak lurretik hartu dituzte. Badiako sendiek bat egin dute. Estibaus urrunegi dago; Trintxerren zein Zamateteren azpian padura baino ez; Erreterriak ez du nola babestu... Basanoaga da tokirik egokiena. Donostiako jauntxoek protesta egiten duten arren, Batzar Nagusiek toki aldaketa baimentzen dute. Sorgintxulo eta Beraunen artean harresi erraldoia altxatzen da. Tebasen antzera, 7 atek zaintzen dute. Molinaoko paduretan tranpak prestatzen dira. Hiri berri modernoa. Astigarragatik doan bidea ere egokitzen dute. Oreretak bere izena errekupe ratzen du. Arrantzale auzoa bihurtzen da. Platan faroa gotortzen da.

Santo Domingo Gipuzkoaren truke. Independentzia aldarrikatu ostean eta Errepublikarekin bat egin ondoren, ordena naturala berreskuratu behar da. Kai berriak eraiki behar dira, Ameriketako itsas trafikoa suspertzeko. Basanoagaren harresiak lehorrean geratu dira, portua garbitzeko auzia etengabe luzatu delako eta irabaziak inork inbertitu nahi ez dituelako. Arizabalo sendiaren etxe azpian harlauza agertzen da. Latineria, euskara eta gazteleraz idatzita. Zati bat puskatuta dago, ikusten da iberiarrez zegoela zizelatu. Etxe horretako sortzaileek Erromako inperioan zerbitzatu zuten, baita Nafarroako erregearen alde ere. Kristautasuna ekarri omen zuten badiara. Arizabalotarrek euren kaiak eskaintzen dizkiete Caracaseko Elkargoari eta Ameriketako armada erregezalean erroldatzen dira. Etxea, Erregea eta Kakaoa banatu ezinak direlakoan. Irabaziak Mexikoko meategietan inbertitzen dituzte.

1805. urtean Ameriketako diruak balio du udalerrri berria sortzeko. Horrela, Pasaia Basanoagatik banatzen da. Badiara begiratzen dituzten baserri guztien jabeek eskumen berriaren parte izatea eskatzen dute. 1821. urtean Donostiako merkatariek harresia tokiz aldatzen dute. Harresi berria, Jasonebason altxatzen da, bidesaria kobratzeko. Merkatariek, Collado familia buru eta ondartzaren inguruan sortu zabalguner profitatuz, trena Donostiaren erdiraino eramaten dute. Groseko padurak lehortu eta industriak hantxe kokatzen dituzte. San Martin aldeko hezeguneetan, langileen auzoak sortzen dira. Donostia Glasgow kantauriarra bezala ezagutzen da. 1937. urtean, Britainia Handiko protektoratua bihurtu zen. Pasaian, berriz, Europako aristokraziak hartzen du atseden. 2016. urtean Europako hiriburu turiskoa izendatzen dute.



3na Liher Gonzalez

#ANDELeredua #Autogestioa #EtxebizitzaPolitika #Gizartea #Kooperatibagintza

Duela urte bete, Iruñeko udal gobernu berriak hutsik zeuden 115 etxebizitza eraberritzeko konpromisoa hartu zuen. Hasierako fasea martxan jarri zenetik, hauetako 25 ekipatu dituzte eta behar urgentea duten herritarrek darabiltzate.

Etxebizitzak eraberritzeko lehiaketa publikoa ere ez zen ohikoa izan. Ohi baino lote txikiagoetan banatu zuten lana, obra monopolizatu orde, enpresa txikiei aukera zabaltzeko. 200.000€ erabili zituzten lan honetarako.

Hurrengo fasean, etxebizitza gehiago berritzeaz gain, pausu berri bat emateko konpromisioa hartu du. IruñAri elkarteak proposatuta, kudeaketa publiko, kooperatibo eta komunitarioa landuko da.

Orain 5 urte sortu zen IruñAri elkarte. Etxebizitzaren gaia eta hirigintza ereduaren alternatibak aztertzeke Iruñean lanean ari ziren hainbat eragile sozial batu ziren; hala nola, PHA, gazte arkitektu kritikoen asanblada, auzo elkarte batzuk, gazte asanbladetakoa partaideak, kontsumo taldeetako kideak, elakagaien produktoreak...

Desjabetzei eta espekulazioari aurre eginez, herritarren beharretan oinarritutako hainbat dinamika abiarazi zituzten: Hitzaldiak, ikastaroak, auzotarren beharren azterketarako parte hartze prozesuak, lurrak berreskuratzeko eta lantzeko dinamika...

Bost urtetako ibilbide honek burujabetzarako gaitasuna eman die herritarrei, iritzi kritikoa sortzeaz gain, alternatibak eraikitzeke. Egun Iruñean gero eta sare handiagoa ari da errealitate berriak sortzen. Kontsumo arduratsua bultzatzen duten kooperatibak, auzo elkarteak, kontsumo taldeak, finantza etikoetan zein energia berriktarrietan oinarritzen diren proiektuak; oro har, herritarren autogestiorako eta burujabetzarako baliabideak garatzen ari dira.

IruñAri elkarteak proposamen bat luzatu dio Iruñako udal gobernu taldeari: 3na proiektua. Proiektu eraldatzailea da berau, etxe huts publikoak kudeatzeko gestio publiko-kooperatibo-komunitarioan oinarritzen dena. Hitzez hitz:

Publikoa: Espazioaren jabea udala da, honek 15 etxebizitza utziko lizkioke kooperatibari. Autobus geltoki zaharrean dauden etxebizitzak dira eraberritzeko zailtasun gehien dituztenak, hauek izango lirateke berreskuratzeko direnak. 50 urterako utziko lizkioke, eta aurrerago, eredu ona balitz, etxe gehiago kudeatzeko aukera izango luke kooperatibak.

Kooperatiboa: Herritarren jabetza diren etxebizitzak Andel eredu kudeatzeko lirateke. Kooperatibak bere gain hartuko luke etxeak berritzeko ardura, udalari lan hau aurreztuz.

Andel eredu Danimarkan oso egonkortua dago. Dagoeneko 125.000 etxebizitza dira eredu honi jarraituz kudeatzen ari direnak; hauetako zenbait, tokiko administrazioekin harremanetan. Andel eredu, etxe eraikinaren jabea kooperatiba da eta bazkideek etxebizitza baten erabilpenerako eskubidea dute. Kooperatiba ezin da banatu eta jabe elkarte bihurtu.

3na proiektuan bazkide bakoitzak sarrera gisa diru kopuru bat jarri beharko du eta etxean bizi den bitartean, hilero alokairua ordainduko dio kooperatibari. 60 m²ko etxe batentzat, hasierako kapitala 6.000 €koa da eta hileroko errenta 190 €koa izatea aurrakusten da.

Bazkideak hasierako kapitala lortzeko kreditua eskatu behar baldin badu, kooperatibak berak eta IruñAri elkarte kideek emango diote bermea. Eraberritze lanak egiteko kooperatibak eskatuko du kreditua eta bazkideen artean banatzeko.

Bazkideren batek etxebizitza utziko balu, hasieran jarritako kapitala bueltan jasoko luke, baina etxea kooperatibaren esku geratzeko litzateke, bazkide berri batek erabiltzeko.

Kreditua eskatzeko finantza etikoetako balibideak erabiliko dira, arriskuak gutxitu eta erantzunkizuna banatzeko.

Komunitarioa: Andel ereduari figura bat gehitzen zaio hemen. IruñAri elkarte kooperatibako bazkide laguntzaile izango litzateke, ahalmen erabakitzailea izango luke. Honekin herriak bere jabetzaren gaineko jarraipena egiteko aukera izango luke. Autobus geltokiaren kasuan esaterako, auzoaren beharretara egokituko lirateke bertako espazioak. Kontsumo taldeetako produktuak kontsumitzeko bideak zabaltu ahal lirateke. Auzolanak bultzatu. Finean, komunitatearen tokiko sareak eta zirkuituak indartu eta berriak sortzeko aukera emango luke.

Orain udalari dagokio proposamena aztertu, kudeaketa zehaztu eta proiektua martxan jartzea. Iruñeak aurrera egingo duen ala ez erabakitzea.

Biomimetika

Nora Barroso

#Biomimetika #Ekosistemak #Elkarlana #Natura

Hegaldia – Arkaitz Barriola

“Biomimetika” testuan oinarrituta

Biomimetika hitzak bizitza imitatzeari egiten dio erreferentzia: **konponbideen bilaketan naturan arrakasta izan duten eredu**en erabilpena. Oinarrian daude naturaren egituren, aukeren eta mekanismoen behaketa eta ezagutza. Halaber, biomimetika kontzeptuaren baitan hainbat ezaugarri hartzen dira kontutan: naturaren funtzionamendua bere baitan dauden energi

Biomimetikaren ikuspuntutik lan egin eta emaitzak lortzeko ezinbestekoa da **diziplina ezberdinen arteko elkarlana**. Halaber, hasieran aipatutako parametroetan aritzeko horiekiko sentsibilitatea eduki beharko lukete ikerlariak eta, behin testuinguru horretan kokaturik, **elkarlanak** izango luke **giltza**: ezinbestekoa **adin tarte desberdinetako pentsalarien** zein **ekintzaileen ekarpenak** (haurrak zein helduak) bai eta ekologoen, biologoen, ingeniarien, zientzialarien eta teknologoen jakintza komuna. Bakoitzak bere modura baina prisma beretik begiratu beharko genioke inguratzen gaituen munduari eta, hala, estetika eta erosotasun zehatzetatik at indibiduoaren oinarritzko osasuna zein osasun kolektiboa eta bere ingurua kontutan hartzen dituen emaitzak landu.

Oso interesgarriak dira Janine M. Benyus-en **BIOMIMICRY** liburuan agertzen diren azalpenak eta lan egiteko moduak. Bertatik hartua da ondorengo esaldia:

“... natura azpian hartzeko ohitua duen gizarte batean, begirunez beteriko imitazioa hurbilpen berri eta iraultzailea da. Iraultza industrialak ez bezala, iraultza biomimetikoak garai berezi batean txertatzen gaitu, zeinean, naturatik ahalik eta etekin handiena ateratzetik naturarengatik ikastera pasatzen garen...”

Natura sortzaile nagusia da eta berak dagoeneko konpondu ditu guk ebatzi nahi ditugun arazoak. Animaliek, landareek eta mikrobio txikiene

Historian zehar kontzeptu hau beti egon da gurean presente, garapen teknologikoan, sozialean zein kulturean. Egun korronte honek garapenaren giltzetako bat dauka eta espero dut bere oinarritzko filosofia mantenduz indar handiagoa hartzea.

Naturari bizkarra emateak eta ekosistemaren mesederako baino talde pribilegiatuarentzat lan egiteak harrapakin kontrolaezinean bilakatu gaitu; gure artean modu basatienean elkarri jaten ari gara (gure buruak barne). Naturak bide bat erakusten digu, zergatik ez pausatu eta hura entzuten gure barnetik irtenbideak bilatu? Naturaren apartekotasunaren imitazioak espezie bezala bizirauteko aukera ematen digu eta etorkizun hori jasangarria da; berak eusten du ingurua eta inguruak eusten du bere forma guztiak, oreka.

Barruan eta naturarekin konektatua dugun sortzailea askatzeko proposamena luzatu nahi dzuet, **etzi beste ingurua eta erlazionatzeko eredu bat eraiki dezagun!**



Ingurumen zuzenbidea gezurra da

Amaia Oleaga

#Auzoekonomia #Ekonomia #EkonomiaEraldatzailea #Ingurumena

Duela urte pare bat, ikasketak amaitu ondoren (langabeziaren eta soldatapeko prekarietatearen zoragarritasunean murgilduta) unibertsitatetik desintoxikatzeko probestu orde

Ingurumen gaiari lotuta egunotan Marrakechera begira gaude, NBEk antolatutako Gailurrean estatuetako ordezkari

Krisi ekologiko multidimentsionaletik salbatuko gaituzten profetak enpresetan bilatzen dituztenek idealistaren ideiatik gutxi eta listatik are gutxiago dute. Merkatuaren kontrapuntu bezala Estatuak ingurumen arauen bitartez arazo ekologikoei irteera eman

Hain zuzen ere jabetza arautze horren baitan dago ingurumen zuzenbidearen gezur handia. Ez dago ingurumen babeserako berme juridikorik. Ingurumen narriaduragatik jabetzan edo espazio pribatuan emandako kalteak dira juridikoki determinatu dai

tezkeenak. Ingurumena ez da bere horretan babesten. Estatuak ez daude bizitzaren beharrei erantzuteko diseinatuta eta haiengandik datorren neurri oro di

Ekuadorren aldaketa kualitatiboa eman nahi izan zen muga estruktural horiek gainditu ahal izateko, natura bera eskubide subjektu bilakatuz. Orain arteko plan

Kapitalismoaren logikaren garaipen handia da behar kolektiboak indibidualki asetzeko eredu

HACKING TEAM: Gaurko informazioa, etziko herria

Ibai Esteibarlanda

#Etzi #HackingTeam #Informazioa #Inteligentzia #OSINT

Badira egun batzuk Hacking Team-ek jasandako ekintzak ziztu bizian zeharkatu zuela mundu osoa internet bidez konektatzen duen kable sare erraldoia. Segundo gutxitan hegaz egiten du informazioak munduaren punta batetik bestera, bidean izan ditzakeen kontrol eta peaje guztietan zintzo-zintzo datu guztiak gorde ondoren.

Horrelako eskandaluekin baino ez dugu lortzen informazioaren erabilpen interesatu hori konspirazioaren zoko ilunetik atera eta errealtatearen argi izpietara plazaratzea. Horrelako egun pozgarrietan baino ez dugu lortzen informazioaren erabilpenak dakarren botereaz hausnartzea.

Snowden, WikiLeaks zein antzeko eskandaluek miresmena sortzen digute. Munduaren alde ilun horretako praktika konspiratibo guzti horiek argitaratzeko ausardia eta inteligentzia duten ekintzek gure arreta bereganatzen dute. Baina miresmen horretatik haratago zalantza sortzen zait ea benetan irakaspenak klabe egokietan ateratzeko gai izaten garen edo ea beti azaleko miresmen eta salaketa antzuekin konformatzen garen.

Denoi balio digute horrelako egunek teoria konspiratiboak baieztatzeke eta hori ere noizbehinka eskertzen da: batetik, gobernu batzuek besteak kontrolatzen dituztela, polizia eta zerbitzu sekretuek herritarrek zelatatzen dituztela, enpresa multinazionalak gure kontsumo ohiturak jarraitzen dituztela; bestetik Hacking Team bezalako enpresen bezeroek informazio hori kontrol sozial eta etekin ekonomikoen helbururekin darabiltela.

Baina horrelako gertakarietatik irakaspen baliagarriak ateratzeko ezinbestekoa da gure buruei ariketa zein erronka egokiak planteatzea. Erantzun sinple eta ulerterrazen gainetik erantzun interesgarriak lortzeko ezinbestekoa dugu galdera egokiak planteatzea.

Galdetzen ote diogu gure buruari egungo jendartean eta une historikoan informazioak duen garrantziaz? Ez naiz ari mundua itzaletik kontrolatzen duten horientzat duen balioaz, hori beti presente dugu ... guretzat duen balioaz baizik!

Hausnartzen ote dugu mundu berri bat eraiki nahi dugunontzat, herri burujabe bat eraiki nahi dugunontzat, informazioak duen garrantziaz? Eta ez naiz ari gure informazioa esku okerretatik babestean, hori presente dugu ... guretzat interesgarri den informazioa nola biltzeaz baizik!

Imajinatzen iristen ote gara mundua itzaletik kontrolatzen duten horiek informazioa haien interesen arabera darabilten bezala guk gure interesen arabera nola erabil dezakegun? Eta zein mekanismo jarri beharko genituzkeen martxan hori egin ahal izateko?

Funtsean, galdetzen ote diegu gure buruei zergatik eta zertarako ote den informazioa hain baliagarria guretzat? Zertarako erabil ote dezakegun informazio hori? Zer egin beharko genukeen guzti hori martxan jartzeko?

Informazioarekin inteligentzia sortzen da, datu hutsen analisi eta lanketatik diagnostikoak, tendentziak,

prospektibak, hipotesiak lortzen dira: kontsumoarenak, ekonomikoak, ideologikoak, laboralak, sozialak, ... eta Hacking Team bezalako enpresen bezeroek ondotoxo dakite hori. Horratx informazioaren balio ezkutu.

Estatuetako polizia eta zerbitzu sekretuek statu quo-arentzat arriskutsu izan daitezkeen perfil pertsonal eta kolektiboak aztertzen dituzte, ondoren sailkatu eta gertatzen hari diren tendentziak aztertuz erabaki eta ekintza polizial ezberdinak non, nola eta zein norabidetan bideratu erabakitzen dute.

Enpresa multinazionalak jendearen kontsumo ohiturak aztertu, tendentziak aztertu eta prospektibak etorkizuneko aukerak aurreikusten dituzte, gure poltsikoetaraino zein produktuekin eta nola iritsi erabakitzeke.

Horretarako balio du informazioak, erabakiak bideratzen eta hartzen laguntzeko: datuak aztertu, hipotesiak egin eta egokien deritzogun norabidean erabakiak hartzeko. Erabakitzeke garaian burujabe izan nahi badugu beraz, ezinbesteko tresna izango da informazioa. Informazio gabeitsu-itsuan ariko ginatzeke estrategia ezberdinen inguruan erabakiak hartzen.

Kontuak horrela, ageriko dirudi edozein pertsona, mugimendu zein erakunderentzat oso preziatua dela informazioa eta honekin sor daitezkeen inteligentzia. Ezin ukatuko diegu geure buru eta amatei, beraz, informazioak eta honetatik sortutako inteligentziak norbere zein ingurukoaren interesak babestu eta helburuak lortzeko daukan garrantzia estrategikoa.

Orduan, guk, behar ote dugu informazioa? Zein informazio behar dugu, zertarako eta zein erabaki hartzeko?


Etzi herri burujabe bat izan nahi badugu, ezinbestean, horretarako garrantzitsu diren gai ezberdinen inguruan (hizkuntza, ekonomia, jendartea, lurralde antolamendua, etab.) erabakiak hartu beharko ditugu, edozein enpresa multinazional, estatu, zein zerbitzu sekretuek bezala. Eta horretarako ezinbesteko izango zaigu ahalik eta informazio erabilgarriena izatea.

Badugu egun informazio hori biltzeko tresnarik? Norabide horretan lan egingo duen talde teknikorik? Guzti hori martxan jarriko duen proiekturik?

Zeren edo noren zain gaude?

Etziko Euskal Herria eraikitzeke gaurko informazioak emango dizkigu giltza nagusiak, atera gaitezen kalera eta ekin diezaiogun erronkari!

Irudia: CC0 Public Domain



Hardware-aren kultura

Mikel Azkarate - @Txertatua

#EkonomiaSozialEraldatzailea #Gogoeta

#GogorraGogora #HardwareLibrea

Buru gaineko LEDa piztu zidan Massimo Banzi italiarrak, Arduino txartelaren garatzaileetako batek, botatako karaktere kateak:

Hardware-a kultura zati bat bezalakoa bihurtu da partekatu eta bere gain eraiki dezakezuna, kantu edo poema bat bezala

Eta gogoetak zeinetatik tira egiteko (kobrezko) haririk baduelakoan, sarrera analogikoari ematen diot segida.

Creative commons lizentzietaz ari zen Banzi, kantu edo poema bat babestu daitezkeen erraminta horrekin berarekin babestu daitekeela hardware pusketa bat. Irekitasunaz ari zen italiarra, agian, koblakariak poema epikoak entzun eta berrinterpretatzen zituzten bezala egin dezakagula hardware-arekin orain, gurer moldatu eta berriz zabaldu. Baina moldatze eta zabaltze horiek ez dira hitzak eta lira-akordeak, bitarteko ekonomikoak behar dira hardware-an proposamen berriak egiteko edo eraldatzeko. Emandakoa transformatzen du kultura oso batek ez soilik emandakoa erabili.


Izan ere bi modu daude maker komunitatea bizitzeko: ekonomikoki eraldatzailea edo hobby soila. Lehenengoak produkzioarako ondasun bezala ulertzen du hardware-a. Bigarrenak kontsumorako ondasuna. Lehenengo hurbilpenak enpresak sortzen ditu proposamen berriekin eta bigarrenak liburutegietako apalak betetzen ditu Kickstarter bitartez finantziatutako azkenengo *Do it Yourself* (DIY) txartel elektronikoen. Badirudi ez dagoela bien arteko continuumik.

Software-arekin badira tarteko esperientzia ezberdinak, baina nolabait produkzio eskala txikiagoa delako izan daiteke: gutxiago kostatzen da (denbora, bitarteko eta pertsona kopuruan) programa bateko kode lerro bat aldatzea eta eguneraketa bidez zabaltzea, txartel elektronikoko bateko txip bat aldatu eta aldaketa berrinstalatzeko baino. Horrela, helburu ekonomikotik eta ludikotik ekidistante badaude software proiektu banatu milaka, ezagunena Linux.

Hardware-aren kultura bat nahiko balitz software-aren kulturaren parekoa, kopia eta zabalpen kostuak txikitu beharko genituzke eta hori da industria, 2. sektore klasikoa, behin eta berriz produktibitatearen bitartez egiten saiatzen dena. Pentsonalki gai interesgarriegiegizat ez daukadana. Bitartean, hardware-aren kopia kostua zero diren mundu birtualak eraiki ditzakegu Minecraft bezalakoak. Birtuala izan daiteke hardware kulturaren etorkizun iradokitzaileena, gogorra bigun bilakatzearen alkimiarena.

Hausturak (China Mièville eta beste)

Xabier Landabidea - @txerren
#AiertGoenaga #AnderGortazar #ChinaMièville #DaneleSarriugarte
#EzkerrekoBurusoilBizarroenBatza #KoldoBizkarguenaga #WeirdFiction #ZiFi



Lurraldeez territorioez aritu da aurreko bitan Koldo Bizkarguenaga (baga eta biga). Euskal territorio analogiko eta digitalaz, fisikoaz eta birtualaz. Eta haien arteko paralelotasuna zalantzan jarri beharraz. Plan-teatzen zuen nola euskaldunok espazio berri bat lortu dugun sarean komunikatzeko, jarduteko, izateko, espazio eta denborak zehaztu ohi dizkiguten mugetatik kanpo. Eta nola horrek baduen garrantzia, eta nola horrek baduen lotura ohiko espazio eta denborekin ere.

Ez daudela deslotuta, banatuta, plano hauek, josita, elkar gurutzatuta eta elkar problematizatuta baino. “Eta zer da ba izan ahal gintezkeen hori?”. Galdetzen zigun Aiert Goenagak. Eta “non, noiz, nola, norekin izan gaitezke izan gintezkeen hori?” gaineratuko nioke. Lurralde eta territorio librerik gabeko herriok sentitzen dugulako nolabaiteko zirrara bat historikoki oso denbora laburrean zabaldu zaigun eremu espe-rientzial eta existentzial berri bat poblatzeko aukera- ren aurrean.

Zirrara zaharra da, noski. Sarri planteatu izan dira Fikzio Zientzian (Birasuegi komandanteak agindu legez hemendik aurrera ZiFi edo Zientzia Fikzioa etiketa erabiliko dugu, bide batez) dimentsio aniztasuna, plana- neta aniztasuna, plano aniztasuna, eta zer gertatzen den plano berri bat, beste eremu bat (edo eremu bes- te bat) aurkitzen, zabaltzen, sortzen, inbaditzen du- gunean.

Ander Gortazarrek salatu berri du Berrian, ETB1 eta ETB2 simulakro erabateko bilakatuta ditugula. Non ETB1en arma saltzaile Armeniarrek euskara garbian egiten duten (baita haren kontra ari diren ertzain saiatuek ere noski), eta ETB2n erdaldun elebakarrak babesten ditugun lingua navarrorumarekiko kontak- tu orotik, sistema imunologikorik gabe jaiotako haur zaurgarriak bailiran, inolako inkomodidade, kutsadu- ra, inolako ikasketa oro ekiteko edo.

Eta hor zabaltzen da dilema ezta? Zeren alde egin. Banaketaren alde edo nahasketaren alde. Garbizale- tasunaren alde edo trukaketaren alde.

China Mièvillek badu (sarrera honekin aipatzen du- gun bigarren burusoila izango da, Grant Morrisonen ondotik) liburu bat, Danele Sarriugartek ere behin Berrian aipatu zuena (zer arraio du Berriak, gure elkarriketak aurrikusi ahal izateko, profetikoa ote...) non aipatzen den hiri bat. Bakarra. Bi izen eta bi izan dituen.

Beszel eta Ul Qoma. Hiria eta hiria.

Bi hiri diren hiri horretan biztanleek lege oso ezberdi- nak dituzte. Janzkera ezberdinak. Keinukera diferen- tea. Kale-izendegi propioa. Mito banatuak (ez elkar- banatuak baizik eta muga batek banatuak, bereiziak eta patrullatuak). Baina badute lege bat komunean. Inportanteena: ezin da muga igaro. Bekaturik larrie- na da beste hirira gurutzatzea. Beste hiriko norbai- tekin hitz egitea, topo egitea, beste norbait hori hor dagoenaz jabetzea ere. Geografikoki grosstopikoki (itzultzaileren bati eskertuko nioke benetan testua eta terminoak euskaratuko balitu) kale berean egon arren, Ul Qomako eta Beszeleko hiritar bik espazio existentzial ezberdina okupatzen baitute. Hala ika- si dute jaiotzez, eta hala mantentzen dute gizarte arau- ek, eta haustura (Breach) deritzon indar polizial misterioitsuak berak.

Erahil dezakezu norbait. Bortxa dezakezu. Erre de- zakezu etxe bat. Auzo bat. Pozoindu ur-gordailu oso bat. Baina lehen galdera beti izango da bera: egon al da hausturarik? Zeharkatu al da bi hirien arteko muga? Hori baita legerik sakratuena. Kontsentsu in- dartsuena. Edozer gertatzen delarik ere, bi hiriak ezin dira gurutzatu.

Mièvillen eleberrian (eleberri poliziakoa bera) eten- gabeko obsesioa da haustura. Hausturaren beharra, hausturaren posibilitatea. Hausturaren pentsaezinta- suna bera.

Eta Koldoren, Aierten, Anderren, Daneleren eta Chi- naren hitzek (Iletrek) pentsarazi didate behin baino gehiago, eta gero eta sarriago, ea ez ote dugun guk ere Hausturaren pentsaezintasunaren poliziaren papera jokatzen behin baino gehiagotan. Eta gehiago kezka- zen nauena: hausturaren, hausturen (adin-hausturak, genero-hausturak, hizkuntza-hausturak, komunita- te-hausturak, tradizio-hausturak...) pentsaezintasuna gordetzean, indartzean, obeditzean, noren onuratan ari ote garen lanean.

Nobelan, paradoxikoki, bi entitate daude hausturatik at lanean, bakoitza bere agendarekin. Ez dut spoile- rrik botako hemen. Baina galdera bat bai: ez ote zaigu komeni hausturak gure parametroen arabera hausten hastera?



Modernitatetik garai globalera

Hedoi Etxarte - @hedoi_etxarte
Peru Iparragirre - @nomadagaldua
#Attali #Demokrazia #EstatuIslamiarra
#GaraiGlobala #Hollande #Mitterrand
#Modernitatea #Neoliberalismoa #Rivera
#Royale #SaudiArabia #Valls

Emantzipazioaren ekipoetako logeletako azken txokora arte iritsi da progresoaren think tanka. Ent- zuten da, adibidez, «talibanak Erdi Aroan bizi dira» esaten den bakoitzean. Baina ez. Talibanak, gu geu be- zala 2015ean bizi dira. Manuel Valls eta Albert Rivera ez dira XX. mendeko hogeita hamarreko hamarka- dakoak. Gure garaikideak dira. Susan Buck-Morss-en bi eskuliburuetan esplikatzen da hau ongi: XIX. men- dean kokatzen duen Hegel Haitin liburu bikoitzan, eta irailak 11ko atentatuen ostean Terrorearen ostean pentsatuz testu bilduman.

Eta ordea, turbokapitalismoaren aldeko bi ekipo bir- tuosoenetakoez –mendebaldeko neoliberalak eta ekialdeko neoliberalak– argi dute. Azaroaren 25ean Eric Zemmour eskuin muturrekoak gogorarazi zuen Paris Premierereko bere saioan: «Saudi Arabia arrakas- ta lortu duen Estatu Islamiarra da».

Zeren hori egiten ari baita Estatu Islamiarra. Kapital handien diskurtsoa hartu eta aplikatu. Jacques Attali merkatu askearen defendatzaileak prime timean emi- grazioari egin zion apologia hura: «gaur egun mun- duko 200 milioi biztanle jaio ez diren herrialdean bizi dira, 30 urtean 1.000 milioi izango dira». Solasaldi hartan esan zuen esaldi sonatu hura: «Herrialdeak hotelak dira eta inbertsoreei harrera egin behar die, inbertsioei, ikerlari- ei, berritzaileei, eta lan egin nahi dutenei. Eta ez dira zertan izan masterrak ikasi dituz- tenak. Bigarren Hezkuntzarik ez dutenek ere energia eta borondate handia daukate».

Wahabismo militanteak ere hala egiten du: mundu osoa du guda zelai, edonon dauzka hotelak. Edonon jaio zaitezke, edonon atentatu bat egin, kapitalismo basatiaren milaka aurpegietako bat gehiago da.

Neoliberalen pentsalari handietako batek idatzi zuen 1996an (184. or.):

«Demokrazia sustatu behar da salbu eta fundamenta- lista islamiarrak boterera eramaten baditu; ez ugarit- ze nuklearra Iranentzat eta Irakentzat dago pentsatua, baina ez Israelentzat; merkatu askea hazkunde ekono- mikoaren elixirra da, baina ez nekazaritzarentzat (edo altzairuarentzat orain); giza eskubideak afera bat dira Txinarentzat, baina ez Saudi Arabiarentzat; Kuwaite- ko petrolioaren kontrako erasoak masiboki arbuia- tu behar dira, baina petroliorik gabeko bosnien aur- kako erasoak ez dira arbuia- tu behar».

Samuel Huntingtonek berak ematen du eskuin mu- turretik progresismo multikulturaleraino egun in- darrean dagoen konklusioa: «Neurri bikoitzak dira egungo praktikan neurri unibertsalen prezio ekidi- nezina». Susan Buck-Morss-ek ondorioztatzen due- nez, pentsamolde neokontserbadoreak «Mundu mai- lako esfera publikoa abandonatzen du hasieratik». Abandonatzen du aurpegi neokontserbadorearekin, aurpegi erreakzionarioarekin eta baita aurpegi mul- tikulturalarekin ere.

Ez dezagun ahaztu Jacques Attalik François Mitte- rrandekin zuen ko, laborazio estua 70eko hamarka- dan. Nola promozionatu zituen François Hollande eta Ségolène Royale eta nola izan den murrizketen alde- koa: 80ko hamarkadatik.

Hardware librea: zertaz ari gara?

Mikel Azkarate - @Txertatua
#Proiektuak #GogorraGogora #HardwareLibrea

Aurreko bi zutabeetan hardware librea nondik datorren eta berorrek nora eraman gaitzakeen gogoetan ibili ostean, oraingoan hardware librea oinarri duten adibide batzuk ekarriko ditut Etzira. Aurrekoetan azaldu bezala, kontu handiz hartzekoa da hardware “librea”-rena, besteak beste ondorengo arrazoiengatik:

- Erabiltzen diren prozesagailu gehienen barne egitura ez da askea eta izango balitz ere (adib., OpenRISC) prozesagailu bat silizioan fabrikatzeko kostuak komunitate askearen eskalatik kanpo daude (milioi eurotako ordenean).
- Txartel elektronikoen (PCB-en) eskematikoak ezin dira lizentziatu eta praktikan “betidanik” kopiaitu izan dira fabrikatzaile bakoitzak bere prozesagailuaren inguruan sortutako garapen txartelak.
- Software-arekin gertatzen ez den bezala, artefaktu hauen kopiak materialeen eta fabrikazioaren kostua dakarte.

Behin hau argituta, hardware libre proiektuak hiru mailatan sailkatu daitezke:

Txartelak

Prozesagailuak deskribatzeko proiektuak (adib., OpenCores) eta hauek inplementatzeko teknologiak (adib., FPGA-k, Papilio) baldin badaude ere, hardware librearen oinarritzko maila txartel elektronikoa kontsideratu daiteke. Behe-mailako programazioa eta PCB diseinuaren jakintzak garatzen dire maila honetan.

Hauen artean ezagunena Arduino proiektua da zailtasunik gabeko. 8 bit-eko instrukzioak maneiatzen dituen Atmel etxeko prozesagailu (zahar) baten inguruan eraikitako dago eta oinarritzko sarrera eta irteera digital zein analogiko bitartez ingurune fisikoarekin hartu-emanen jardun dezake, aplikazioa edozein izanda ere. Posible da txartela kopiatzea egileek eskema libre partekatzen dituztelako edo prezio merke batean (10-15€) bat erostea. Arduinoa programatzeko erramintak libreak dira eta deskargagarri daude proiektuaren orrialdean bertan. Modelo ezberdinak daude eta funtzionalitate gehiago eman dakizkioke hedapen txartel bitartez.

Maila altuago batean, ingurune fisikoarekin baino, mundu zibernetikoarekin konektatzen diren ordenagailu txikiak daude. Sarera zuzendutako programazioa da maila honetan lantzen den jakintza.

Hemen egongo litzazke Arduino proiektuak berak aurtun ateratako Arduino Zero txartela (Atmel-en 32bit-eko ARM prozesagailu batekin), BeagleBone txartela, edo programazio paraleloa baimentzen duen Paralela txartela, besteak beste. Azkenaldian oso ezaguna egin da Raspberry mini-ordenagailua, baina argitu beharra dago txartel honek alderdi ilun asko dituela barne informazioaren askatasun aldetik, nahiz eta komunitate interesgarri bat errotzeko gai izan den eta oso merkea saltzen dituzten (35€).

Txarteletan oinarritutako aplikazio konkretuak

Agian, neurririk egindako edo aurretik aipatutako txarteletan oinarritutako aplikazio konkretuko proiektuak dira ugariak. Aurretik aipatutako programa-

zio eta txartel diseinuaz gain, automatika eta sistema elektronikoen kontrola bezalako arloak jorratzen dituzte.

Bi adibide ematearren OpenEnergyMonitor eta CrazyFlie aipatu ditzazkegu. Lehenengoak energia kontsumoa monitorizatzeko bide bat eskaintzen du era irekian garatutako sentsore eta pantailadun txartel bitartez. Bigarren proiektua drone bat da, hardware eta kontrol irekia dituen txartel hegalaria bat. Bi kasuetan guk geuk txartelak fabrikatu ditzazkegu edo beraien dendetan zuzenean erosi.

Sistema Osoak

Bukatzeko, hardware sistema oso eta konplexuak eraiki daitezke era irekian. Proiektu hauek txartel elektronikoa gaintzen dute eta zati mekaniko eta egituren diseinua ere hartzen dute beregain. Konplexuak eta irekiak izaki, multidisziplinarra den komunitate baten laguntza giltza da horrelako proiektuetan.

Adibide harrigarriena Open Source Ecology proiektua izan daiteke, proiektu honek herri globalean erabil daitezkeen 50 makinaren diseinu irekia proposatzen dute, 3D imprimagailu batetik haize errota elektriko batera, eskabadora edo mikro-etxe batetik pasata. Guztia herriko dendetan erosi daitezkeen materialeak erabilia. Euskal Herrian ere bada proiektu honetan lan egiten duen komunitatea.

Ikusezintasuna: gatazka eta errelatoaren esanahi berriak (Grant Morrison)

Xabier Landabidea - @txerren
#EzkerrekoBurusoilBizarroenBatza #FikZi
#GrantMorrison #Komikia #TheInvisibles #ZientziaFikzioa

[Irakurleari oharra: Sarrera hau Fikzio Zientzia eta Fikzio Arraroaren -hemendik haurrera FikZi- inguruko lan interesgarriei buruzko irakurketa sail baten lehena da. Etzi Portu Maritimoaren etorkizunarekiko nostalgiaren aitortzarekin bat eginik egileak uste du Euskal Herritik badugula zer entzun, irakurri, jolastu, idatzi eta esana gai hauen inguruan. Sailari hasiera emateko komiki formako lan berezi bezain interesgarri bat hartu dugu.]

Badaude komiki estraino, dentsu eta anbizioz beteak munduan, baina ziurrenik ez asko Grant Morrison eskoziarraren Ikusezinak (The Invisibles) bestekoak. Atzera begiratuta mirari txiki bat dirudi autore lan esperimental hau akaberaraino heldu izanak, zinez ariketa estetiko, narratibo eta magiko (itzuliko gara horretara gero) benetan bitxia baita burusoil honek aurrera eramandakoa.

Baina has gaitzen hasieratik. Hau da, amaieratik.

Ikusezinak lanaren muinean gatazka dago. Gatazka zaharra -zaharrena akaso- bi aurkariren artean. Gerra. Kontrolaren eta askapenaren arteko gerra; ezaren eta baiaren arteko guda, nahi bada. Alde batean Kanpoko Eliza dago (The Outer Church): opresioa, obediencia eta beldurraren ideia bera, ezin bote-retsua, ezin zabalduagoa, denok soma dezakegun bezala etengabeko aurrerapena eginez munduan. Kolpe kolpe moldatuz, perfektionatuz gizateriaren kartzela (ikus baita Kult rol jokoa). Beste aldean berriz Ikusezinak (Invisibles). Fakultate ikusezina, Harlequinadea, Azken Konspirazioa. Askazio nahia, gizateriaren mugarik gabeko emantzipazioaren aldeko

indarren koalizioa.

Gatazka eta errelatoa, komiki sail zail eta sailkagaitz honen muinean. Aluzinazioaren kontrolaren, hegemoniaren bilaketa eternalaren dema. (Anje Duhalderen ahotsa entzuten da, sotil: garaipen eguna... lortzen ari garena... lortuko duguna). Hori baina, ez da geruza bat baino. Gauzak ez baitira beti/inoiz diruditena. Lehen zenbakiko tik autoritariodun irakasle libertario onbera ez da dirudiena, eta istorioko protagonista nerabe-terrible molotov-aipale-eta-jaurtitzaille-Dane McGowan ere ez da hasiera batean den hura.

Gatazka badago, baina ez da dirudiena. Etsaia eta gu, gu eta etsaia, ez dira guk uste duguna.

Ikusezinen zelula ezberdinak ikusiko ditugu bortxaren alde eta aurka egiten, maitemintzen, esploratzen, hiltzen eta erahiltzen. Erratzen eta asmatzen. Ausartzen eta koldartzen. Eta ikusiko ditugu unibertsoaren eta errelatoaren bertsio ezberdinak bando bietako fakzio ezberdinen aho-ezpainetan. Denak sinesgarriak. Denak sinestezinak.

Errelatoaren, narratibaren gerra ere ez da finean linealtasun baten edo bestearen artean konponduko, geroz eta konplexuagoa, interaktiboagoa den metates-tu(inguru) bat sortuz baino. Komikia kosmos osoaren matrioska panpin bat bihurtzen den arte, unibertso osoa (hau da, irakurlea) eraldatzeko saiakera estetiko ausart bezain arrakastatsu batean. Ezinezkoa da Ikusezinak irakurri eta esperientziatik eraldatuta ez ateratzea.

Dena da erreala. Dena gertatzen da. Heriotzak, tortura, traizioak, magia, denboraren makinak. Komikiak Morrison beraren bizitzako pasarteak ditu txertatuta, eta komikia bera autorearen bizitza magikoki aldatzeko saiakera kontzientea bilakatu zen hipersigil edo hiperzigilu bezala ulertuta. Autorea eta pertsonaia, Grant Morrison eta King Mob -burusoilak biak- nahastu egiten dira etengabe.


Gatazka erabat da benetakoa. Fikzioa errealitatea da. Borroka erreala da, eta protagonistak (lehen borrokalariak, etimologiari erreparatuz gero) ere errealak dira. Irakurlea fikzio-jantziaren baitan sartu eta errelatoa bizi eta berreraikitza gonbidatzen du Morrisonek, pertsonaia batek ere egiten duen modu berean. Irakurketa sormena da. Lineartasuna ilusio bat da. Denbora gu hazten ari garen lursaila da, ez besterik. Gauzak ez dira beti/inoiz diruditena. Gatazka eta errelatoa ere ez. Izan, badira, noski, eta ezaren eta baiaren, kontrolaren eta askapenaren arteko borroka zentzu osoa du, baina zentzu holografiko batean. Bi planoren arteko intersektzioa da gure mundua.

Gure hatzamarren (eta behatzen, euskalkiren bate-tako hitzunen zein oinekin egindako metaforen aldekoentzat) arteko espazioa bezain arrotza da arerioa. Arerioa gu geu gara. Eta hau ez da gerra bat, erreskate operazio bat da.

Meritu eta demeritu asko ditu Ikusezinak lanak. Luzea da. Dentsua. Zaila. Zuzenbideko testu liburu bat baino erreferentzia gehiagorekin josita dago. Komiki hipertestuala da (ikus adibidez Wicker Man filmaren inguruan proposatzen den irakurketa Eremuz Kanpon). Aurrera eta atzera eta saltoka eta zatika irakurri baino murgiltza gonbidatu eta ia-behartzaren zaituen lana. Esperimentu narratiboa. Esperimentu magikoa. Esperimentu politikoa. Mundua eta irakurlea – Jose Antonio Artzek liokeen bezala gizon haundi bat baita mundua, eta mundu txiki bat gizona – aldatzeko pausu bat aurrera.

Makinaren parte bihurtu nahi gaituzten indarrak, larruzko erropa estua, gabardina luzeak eta tiroak, etxeorraztatik jau(z/s)iak, balak eta gnostizismoa. Matrix baino arinago (eta hobeto) egina zuen hori guztia Morrisonek. Eta gehitu zizkion anbizio gorena-go batzuk. Itxaropen berriak.

Beharrean gaude.



etzi.pm-n idatzitako artikuluen sorta, urtero posible egiten lagundu nahi bagaitu, tuzuzi crowdfundinga zabalik **etzi.pm** webgunean

5€
A.Garai

• Esker publikoa

10€
P.A. “Ezkila”

• Esker publikoa
• Pegatinak

20€
J.Suhigaraitxipi

• Esker publikoa
• Pegatinak
• Urtekaria

50€
Étienne Pellot

• Esker publikoa
• Pegatinak
• Urtekaria
• Kamiseta

+50€
J. Laffite


• Esker publikoa
• Pegatinak
• Urtekaria
• Kamiseta

50/U€
M. le Basque

• Esker publikoa
• Pegatinak
• Urtekaria
• Kamiseta
• Etzi eguneko bazkaria

4interpret

Zure mugikorrean berehalako itzulpenak egiteko azpiegitura



interpret.io
Infomazio gehiago jasotzeko.



Talaio's koop
talaio's.coop
kontaktua@talaio's.coop

Sortu • Eraldatu • Elkarbanatu • Koop

Tresnak & Garapena
Formazioa & Ahalduntzea

Estrategia & Analisia
Ekonomia & Eraldaketa

Aralar plaza 1.
solairuartera 2.
20100 Orereta-Errenteria
Tel. 943 013 297